

Elorrioko komertzioa errelebo bila

Elorrioko Alde Zaharrean zarratu diren bost negozioetatik bakarrik izango du erreleboa. Denbora gutxian, denda ezagunak itxi dituzte herrigunean, jabeek erretiroa hartu dutelako. Elorrioko Merkatarik Elkartek dioenez, hamar bat urte barru merkatarien belaunaldi bat jubilatzen denean negozio horien jarraipena kolokan egon daiteke. • 2-3



'Maitasunaren itxiera' San Agustinen ikusgai

Bilboko Arriaga antzokian estreinatu eta gero, Eneko Sagardoyk eta Miren Gaztañagak Durangoko San Agustin kulturgunean antzeztuko dute 'Maitasunaren itxiera'. Banandu den bikote baten hitzordua da antzezlanaren abiapuntua. Pascal Rambert dramaturgo entzutetsuaren 'Clotur de l'amour' lanaren egokitzapen euskaratua da. Emanaldi bietarako sarrera guztiak salduta daude. • 24



Kutxa Birari ongietorria egin diote Durangon

Kutxa Birak euskara eta Euskal Herria ipini gura ditu erdigunean. Egunotan, Euskal Herriko udalerrak eta diaspora zeharkatzen dabil, eskurik esku. Eguazteen Durangotik pasatu zen. • 4



ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa

Gaurko erronka biharko lanbidea

AURREMATRIKULA (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)
Maiatzak 31tik ekainak 18ra arte





Elorrioko Alde Zaharreko irudia.

Elorrioko Alde Zaharreko komertzioa errelebo bila

Hainbat denda ezagunetako merkatariek erretiroa hartuko dute. Komertzio batzuen kasuan, erreleboa aurkitu dute aurrera egin ahal izateko. Beste batzuek, oster, pertsiana zarratuko dute. Herrigunean aldaketa igarriko da. Udalak hutsik dauden komertzioak bultzatzeko diru-laguntza emango du

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Elorrioko Alde Zaharrean hain ezagunak diren komertzioetara aldaketak datoz. Zenbait merkatarik erretiroa hartuko dute eta negozio batzuek ez dute jarraipenik izango. Beste kasu batzuetan, erreleboa aurkitu dute. Montse perfumeriaren eta 'Pipas' kopistegiaren kasuan, biak jubilatu dira, eta Akebaso harategiak ere pertsiana jaitsi du jabeen erretiroa dela eta. Igartua kirol denda ere laster itxiko dute, jubilazioagaitik. Kasu honetan, lokal horretan udalaren Turismo Bulegoa ipi-

Izaskun Agirre (EME):
"Konfinamendu ostean
jendearen elkartasuna
nabaritu genuen

niko dute. Guergue arraindegia salbuespena da, herriko gazte bik hartu dute eta. Denbora gutxian, aldaketa asko.

Izaskun Agirre Elorrioko Merkatarik Elkarteko (EME) kideak dioenez, merkataritza orokorrean sasoi kezkarria bizitzen ari da, eta Elorrio ez da salbuespena. "Denda batzuk aurrera doaz beste pertsona batzuek hartu dituztelako, baina beste

batzuk itxita geratuko dira". EME elkarteko kideek errelebo falta igartzen dute komertzioetan. Hemendik hamar urtera, merkatarien belaunaldi handi bat jubilatzen denean, tokiko merkataritzagaz gertatu daitekeenagaz arduratuta daude EMEn.

Udaleko laguntza

Errelebo horretan bultzada emateko asmoz, Elorrioko Udalak diru laguntza emango du hutsik dauden merkataritzako lokalak berrakibatzeke. Helburu horregaz, udalak 15.000 euroko diru atala onartu du. 2021eko abenduaren 31ra arte eskatu ahal izango da. Udaletik azaldu dutenez, ekintzaileek gehienez 4.000 euro jaso ahal izango dituzte jardueraren lehenengo urtean sortutako gastuak ordaintzeko. Laguntza hori positiboa dela diote EMEtik. Gaineratu dutenez, merkatarik berriek aholkularitza ere behar izaten dute.

Sareko salmentak

Sareko salmentek kalte handia egin diete tokiko merkatariei. Erosketa mota horrek lan prekarioak sortzen dituela dio Agirrek. Hala ere, jendeak tokiko merkataritza eskertzen eta baloratzen duelakoan dago. "Itxiera perimetrala egon denean ikusi dugu jendeak herrian erosi duela, Bilbora

eta beste leku batzuetara erosketak egitera joan beharrean", gaineratu du Agirrek. "Konfinamendu ostean jendearen elkartasuna nabaritu genuen. Hunkituta zeuden denda asko itxita eduki genituelako, eta guri laguntzeko prest zeuden", gogoratu du.

Izaskun Agirrek etxerako gauzak saltzen ditu Izara dendan. Toallak, izarak... Merkatarien artean emaitzak desberdinak izan

dira sasoi honetan, negozio motaren arabera. "Etxean denbora askoan egon garenez, ikusi dugu

Zenbait merkatarik
erretiroa hartuko dute
eta negozio batzuek ez
dute jarraipenik izango

zerk falta egiten zigun, eta, nire arloan, aspaldian mugitu ez dena

mugitu da. Zapata denda eta arropa dendetakoek ez dute berdina esango, ez dugulako etxetik irteten. Arlo honetako dendok igarri genuen igoera".

Ostalaritzaren ordutegi murritzketek merkataritzan duten eragina ere azpimarratu dute EMEtik: "Dendok betiko ordutegia dugu, baina ostalaritzan murriztu egin da. Arratsalde eta gauetan itxita egoteak eragina izan du".



Elorrioko Berrio-Otxoa kalea.

Merkatariak



MONSERRAT
URIZAR

Montse perfumeria

50 urtean zabalik izan eta gero, urriaren 15ean erretiroa hartu eta Montse perfumeriak betiko itxi zituen ateak.

50 urte egin dituzu dendari. Zelan joan zaizu?

Pozarren nago urte hauetan guztietan egindako ibilbideagaz, lanera beti oso pozik etorri naiz eta. Uste dut zorte itzela izan dudala, herritarrak oso ondo portatu dira nigaz eta oso hartu-eman politak egin ditut. Bezeroak lagunak izan dira niretzat.

Dendaren 50 urteko ibilbidean, oso une gogorra ere bizi izan nuen, 30 urtean lankide izan nuen Ana Epelde hil egin zen-eta gaixotasun baten ondorioz. Hori kolpe itzela izan zen niretzat, hartu-eman zoragarria nuen beragaz eta.

Zuretzat bezeroak lagunak direla diozu.

Horrela da, bai. Gure bezeroek ezkontza-
ren bat, bataioren bat edo dena delakoren
bat zutela, bertara etortzen ziren. Geneu-

**"Berriro jaioko
banintz ofizio
berdina
aukeratuko nuke,
eta Elorrion"**

kan onena eskaintzen genien beti, euren
gustuen arabera. Bezeroen eta gure ar-
tean konfiantza handia sortzen zen, dena
partekatzen genuen.

**Orain aste batzuk, dendaren aurreko aldea
kartelez josita zegoen. 'Eskerrik asko,
Montse' eta horrelakoak ageri ziren. Nork
egin zituen kartelak?**

Azken urte bi hauetan, Itziar Azkarra-
gaurizar egon da nigaz dendan, eta berak
egin zituen kartelak. Itziar oso langile
ona izan da guretzat, artista bat da eta
izugarri balio du. Berak egindako karte-
lek ilusio itzela egin zidaten.

**Herri txiki bateko dendaria izateak asebe-
te al du Montse?**

Nik beti esaten dut gauza bera: berriro
jaioko banintz ofizio berdina auke-
ratuko nuke, eta Elorrion. Benetan
eskertuta nago.

Orain elorriarrak esku onetan gau-
de, hortxe daukagu-eta Anitha Mol-en
denda.



KONTXI ETA BEGOÑA
URIZARBARRENA

Akebaso harategia

**Akebaso harategia 80 bat urtean egon da
zabalik. Erretiroa hartzeko sasoia helduta
eta ikusita familian erreleborik ez dagoela,
harategiko ateak itxi dituzte.**

Bizi osoa harategian eman duzue.

B.U.: Bai, lau neba-arrebetatik zaha-
rrenak gara, eta familiako harategian
laguntzea egokitu zitzaigun guri. Ni 13
urteagaz hasi nintzen harategian gura-
soei laguntzen, ofizioa ikasten, eta 65 ur-
te pasatxogaz erretiratu nintzen. Kontxi
ere gazterik hasi zen eta bera ere 65 urte
pasatxogaz erretiratu da.

**Zuen harategia belaunaldi bian egon da za-
balik. Ez zaizue erreleborik etorri atzetik?**

K.U.: Ez. Nik alaba bi dauzkat eta argi
esan zidaten ez zutela harategiagaz ezer
jakiterik gura. Begok ez du seme-alaba-
rik, eta, beraz, amaitu da, akabo. Lastima
da orain lokala horrela ikustea, baina
atzetik ez daukagu inor.

Zelako balorazioa egiten duzue?

**"Lastima da
orain lokala
horrela ikustea,
baina atzetik ez
daukagu inor"**

B.U.: Oso balorazio ona, oso pozik egon
gara eta pilo bat saldu dugu. Hala ere,
egia esan, lan asko egin dugu, ordu asko
sartu ditugu bertan. Denda itxita geneu-
kan orduetan ere, kalean jendea ikusi eta
enkarguak jasotzen genituen. Hala ere,
dena positiboa izan da eta gure barruan
hainbat bizipen eta istorio daramatzagu.
K.U.: Negozio honetan eguneroko kon-
taktua izaten duzu jendeagaz, eta asko
ikasi dugu herritarrengandik.

B.U.: Urte hauetan guztietan argi ikusi
dugu negozioa pertsonekin egiten dela.
Gaur egun, ostera, komertzio askok ez
dute horrela egiten.

**Zelan ikusten duzue komertzio txikiaren
etorkizuna?**

K.U.: Jenderik gehiena merkataritza-gu-
ne handietara doa, eta horrek komertzio
txikiak galtzea dakar. Komertzio txikia-
ren alde egin beharko litzateke apus-
tu, osterantzean herriek bizia galduko
dute eta.



ROSI RETOLAZA ETA
IRATXE UNZUETA

Guergue arrandegia

**Komertziorik gehienak ixten dabilzan ho-
netan, Rosi Retolazak eta Iratxe Unzuetak
Guergue arrandegia hartzeko apustua egin
dute. Martxoaren 9tik Errebonbilo kaleko
arraindegian aurkitu daitezke izeba-ilo-
bak.**

**Orain hile bi zabaldu zenuten arrandegia.
Zer dela-eta erabaki zenuten zabaltzea?**

I.U.: Orain arte arrandegia izan duen Ro-
geliok eta Rosik oso hartu-eman ona zu-
ten. Rogeliok erretiroa hartzeko asmoa
zuela esan zion Rosiri, eta galdetu zion
ea denda hartzeko prest egongo litzate-
keen. Horrela animatu ginen arrandegia
hartzera.

**Oraingoz hasi besterik ez zarete egin,
baina, zelako erantzuna izan du dendak
orain arte?**

I.U.: Egia esan, oso ona, guk espero ge-
nuen baino dezente hobea.

**Zuen arrandegia herri erdigunean dago
eta azkenaldian hainbat komertzio itxi da**

**"Herritarrak
komertzio
txikietan erosten
jarraitzera
animatzen ditugu"**

**bertan. Zelan ikusten duzue komertzioen
etorkizuna?**

I.U.: Sei hilabeteko epean hainbat ko-
mertzio itxi da Elorrion, harategi bat eta
Montseren denda esaterako. Hala ere,
Elorrio herri txikitxo da eta, oraingoz
behintzat, jende askok erosten du bertan.
Gainera, uste dut oraindino jendeak ga-
rrantzia ematen diola denda txikietako
kalitateari. Eta baita denda txikietan
ematen den arreta bereziari ere. Azken
batean, horrelako herri eta komertzio
txikietan ondo ezagutzen duzu bezeroa,
badakizu zeintzuk diren bere gustuak.
Komertzio handietan hori ezinezkoa da.
Beraz, oraingoz ez daukagu beldurrik.

Elorriarrei zerbait esateko?

I.U.: Herritarrak komertzio txikietan
erosten jarraitzera animatzen ditugu. Az-
ken batean, komertzio txikira erosketak
egitera ez bagoaz, denda horiek ateak itxi
beharko dituzte, eta komertzioak itxita
herriak hil egiten dira.



JULIO
KAMIRUAGA

Kamikopiak

**Martxoaren 30ean urtea bete zen Julio
Kamiruaga 'Pipas'-ek Kamikopiak denda
itxi zuela.**

**28 urtean zabalik izan eta gero, iaz zarratu
zenuen Kamikopiak denda. Zelako oroitzap-
enak dituzu?**

28 urte zoragarri bizi izan ditut bertan.
Elorrioko jendea berezia da, jende jatorra
eta ona. Lehenengo momentutik ondo
hartu gintuzten, bai ni eta baita denda
ere, eta oso eskertuta nago horregaz. Ur-
te hauetan guztietan elorriarrekin izan
dudan hartu-emana zoragarria izan da.
Oso oroitzapen politak ditut. Eta hemen-
dik eskerrak eman gura dizkiet dendatik
pasatu diren guztiei.

**2020ko martxoaren 30ean hartu zenuen
erretiroa.**

Horrela da, bai. Nire bizitako etapa bati
amaiera eman nion, nire bizitzako etapa
interesgarri bati. Azken batean, Elorrion
ez zegoen zerbitzu bati leku egitea lortu

**"Elorrioko jendea
berezia da, jende
jatorra eta ona;
oso eskertuta
nago"**

nuen orain 28 urte. Orain, denda hori
historiaren parte da.

Zuk zelan ikusten duzu komertzio txikia?

Komertzio txikia ezinbestekoa da eta
niretzat garrantzi itzela du. Nik, esatera-
ko, erosketa guztiak herriko dendetan
egiten ditut.

Hala ere, egia esan, momentu honetan
arazo askogaz ikusten dut komertzio txi-
kia. Arazo handiak daude zentro komer-
tzialak eta plataforma handiak direla
eta. Horrez gainera, instituzioetatik ere
ez dago borondate politikorik hori guzti
hori apur bat geldiarazteko.

Zerbait gehiago gehitzeko?

Bai, dei bat egin gura neuke hemendik,
komertzio txikia bultzatzeko deia. Kon-
tua ez da zentro komertzial handien
kontra egitea, ezta plataformen kontra
ere. Baina bai gurearen, etxekoaren,
txikiaren alde egitea. Azken batean, ko-
mertziorik bako herri bat hilda dagoen
herri bat da.

Kutxa Birari harrera beroa eginda, herria eta hizkuntza aldarrikatu dituzte Durangon

Kutxa Bira Euskal Herriko herriak zeharkatzen dabil azken egunotan. Joan den astean Elorrio bisitatu zuen eta astean Durangora ailegatu da. Egitasmo berezi honek pandemiak eragindako hutsuneak bete gura ditu euskalgintzaren eremuan



Ekitaldia Benita Uribarrena parkean egin zuten.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Benita Uribarrena parkea euskaltza-
lez bete zen eguazten arratsaldean
Kutxa Birari merezitako ongietorria
egiteko. Zur-landuz egindako kaxa
berezia Larrabetzu aldetik ailegatu

zen Durangora, eta bertan batu-
takoek txalo, txalaparta, dantzari
eta txistulari artean hartu zuten
ezohiko bisitaria. Ezohikoa delako
Kutxa Bira. Egitasmoa Iparra Hegoa
elkartean antolatu du, eta, zelanbait

esateko, pandemia hasi zenetik hona euskalgintzak bizi duen hutsunea bete gura du. Izan ere, ez dugu Ibilaldirik izan Elorrión, Plateruenak etapa bat amaitu du, ez da Nafarroaren Eguna ospatu Baigorri,

Korrikaren lekukoak ez du Euskal Herria zeharkatzerik izan, eta, salmenta aurreikuspenak gaintitu zituen arren, Durangoko Azokak ezin izan zuen Landako Gunea berotu. Hori dela-eta, herriarentzako eta hizkuntzarentzako konpentsazio emozional bat izan gura du Kutxa Birak.

Durangoko ekitaldia anitza izan zen. Dantzariaren *Agurra* amaituta, herritar batek kutxa barruko mezua irakurri zuen. Amets Arzallus bertsolariaren testu bat. Peio Azkarate rap kantariak kantu bat abestu zuen. Bertsoak ez ziren falta izan. Karrika antzerki taldeko Gorka Madrazok durangarrek euskalgintzarako dituzten ideiak plazaratu zituen, eta, halantxik, apurka-apurka, ekitaldia amaiera-ra ailegatu zen.

Zurezko kutxa eskuetan hartu eta hurrengo udalerrira eramateko ordua ailegatu zen. Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek Urkabustaizko herritarrei (Araba) pasatu zieten Kutxa Bira.

**Dendak Bairen
kanpaina berriak
deskontu eta zozketa
ugarigaz datoz**

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Dendak Bai merkataritza el-
karteark urtea amaitu bitartean
egingo dituen kanpainen berri
eman du. Hilero-hilero kanpai-
na bat landuko du eta abantaila
guztiak elkartearen parte diren
86 establezimenduetan aprobe-
txatu ahaliko dira. Maiatzaren
20tik aurrera, adibidez, %10eko
deskontu zuzena aplikatuko
dute zerbitzuetan zein produk-
tuetan. Ekainean ostalaritza
txartelak zozkatuko dituzte eta
uztailean doako erosketak zotz
egiteko txanda izango da.

Abantailez aprobetxatzeko, ezinbestekoa da Durango Txartela erabiltzea. Txartela Nafarroako Rural Kutxan edo Dendak Bairen bulegoan eskuratu daiteke.

**Kiroleneren sarbide
probetarako izena
emateko epea zabalik
hilea amaitu arte**

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Atletismo, saskibalo, eskubalo, futbol, areto-futbol, salbamendu, sorospen eta piraguismoko sarbide probetan izena eman gura duenak maiatzaren 30era arte du epea zabalik horretarako. Interesdunek sarean egin beharko dute matrikula eskaera, Hezkuntza Sailak horretarako prestatu duen aplikazioaren bitartez: ikasgunea.euskadi.eus/eu/inicio. Inskribatutako behin-behineko zerrenda maiatzaren 31n publikatuko dute, eta erreklamazioen bat egin gura dutenek maiatzaren 31tik ekainaren 1era izango dute horretarako aukera. Bestalde, ekainaren 2an argitaratuko dute inskribatutako behin betiko zerrenda. Sarbide probek hautagaien trebetasuna frogatzea dute helburu.

Durangoko Udalak bentzeno pikoan jatorri zehatza ikertu dadin eskatu du Jaurlaritzan

Durangoko, lurretako eta Mankomunitateko agintariak
Ingurumen Sailagaz batu ziren atzo Eusko Jaurlaritzan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko airearen kalitateari buruzko gorabeherak beste pauso bat eman dute asteon. Durangoko Udaleko, Iurretako Udaleko eta Mankomunitako agintariak Ingurumen Saileko ordezkariekin batu ziren atzo Gasteizen. Durangoko Udala "pozik" dago Eusko Jaurlaritza "lanean hasi delako", baina azpi-

marratu du bentzeno pikoan "foku zehatza" zein den ikertu behar dela, "neurri handi batean" horrela "konponduko" delako arazoa. Hain zuzen ere, horixe eskatu diote Ingurumen Sailari: bentzeno pikoan jatorri zehatza ikertzeko. Tecnaliaren txostenaren arabera, horien jatorria Iurretan legoke, saihesbidetik Zornotzarako eremuan.



Durango eta lurreta arteko plano orokorra.

anboto 

**Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558**

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko maiatzaren 7a
19. urtea - 848. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabbarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta
 Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba
 Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi,
 Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



2015 **Beta** **Inkam**
 reconocimiento
 a la innovación
 certificada de calidad
 en la gestión empresarial

 PEFC ziurtagiria
Produktu hau
kontrolatutako
iturrietako materialez
egina dago, birzikilatua
da eta Baso Kudeaketa
Iraultzailearen
Ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-30-00225



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Zornotzako Azkuna egoitzan garbitzaile bi kaleratu dituztela salatu du ELAk

Orain, zerbitzua eskaintzeko denbora gutxiago dutela diote

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Jose Maria Azkuna adinekoen egoitzako garbitzaileek agerraldia egin dute asteon. Zerbitzua eskaintzeaz arduratzen den Clymagrup enpresak behargin bi kaleratu dituela eta gainerako beharginei ordutegi murrizketak ezarri dizkiela salatu dute: "Garbiketa-zerbitzuari geroago eta funtzio gehiago egotzi izan zaizkio, eta murriztu egin da

zeregin horiek egiteko denbora", esan dute. Datu bat ipini dute egoera ilustratzeko: behargin bakoitzak "24 segundo" ditu egoitzako azalera hartzen duen "metro karratu" bakoitza garbitzeko. Egoera "larria" da euren esanetan, eta halantxik daude "pandemiaren aurreko urteetatik". Kaleraturiko langileek diote gertatutakoak eragina izango

duela eurengan eta euren senideengan, baina albo-kalte horiek egoiliarrek ere igarriko dituztela gaineratu dute. Maiatzaren 20an greba egingo dute hori guztia salatzeko. Adinekoen egoitza Bizkaiko

"24 segundo" dituzte egoitzako azalera hartzen duen "metro karratu" bakoitza garbitzeko

Foru Aldundiarena da. Kudeaketa lanak IMQ-Igurco enpresak egiten ditu eta azken honek Clymagrup enpresa azpi-kontratatzan du garbiketa lanetarako.

46 urteko behargin bat bihotzekoak jota hil da Zornotzako Forging Steel enpresan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Ezbeharra astelehen gauean izan zen. Zornotzako Forging Steel Products lantegiko behargin bat bihotzekoak jota hil zen lanean zebilela. Fabrikako Langile Komiteak kontzentrazioa egin zuen martitzen eguerdian, eta

hainbat langilek "elkartasuna eta babesa" adierazi zizkieten hildako beharginaren senide eta gertukoei.

LAB sindikatuak adierazi du heriotza "lan istripu ez traumatiko" bati zor zaiola, eta horren eragileak "lan baldintzak, pre-

sioa eta estresa" izaten direla. Datu bat ere eman du: iazko "lan istripu hilgarrien %25" istripu ez-traumatikoak izan zirela dio. Urtea hasi zenetik hona, bestalde, Euskal Herrian lau behargin modu horretan hil direla jakinarazi du LABek.



Fabrikako beharginek kontzentrazioa egin zuten martitzen eguerdian.

Maiatzaren 2an gertaturiko eraso matxista gaitzetsi dute Zornotzan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Martitzenean, hainbat zornotzar batu zen Erreferendum plaza lez ezagutzen den plazatxoan, Sabino Arana kalean. Aurreko domekan herrian gertaturiko eraso matxista salatu zuten. Zornotzako mugimendu feministak egin zuen mobilizazio deialdia, eta udalak bat egin zuen protestagaz. Bertan

bildu zirenek honako hau adierazi zuten: "Pandemia matxistari aurre egiten jarraituko dugu, behar den guztietan kaleak hartuz, gure gorputz, gure pankarta eta ahotsekin. Jadanik ez dugulako beldurrik. Beldurrak aspaldi aldatu zuen auzoz, eta horixe da pandemia matxistaren aurrean dugun bakunarik onena".



Kaitana eta Santa Ana arteko igogailua datorren udaberrirako prest izatea gura du udalak

Udalak irisgarritasuna hobetu gura du igogailuagaz

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Goizegi da martxan noiz egongo den zehazteko, baina udal agintariak 2022ko udaberrirako prest izatea gura dute. Igogailu berriak Kaitana plazaren eta Santa Ana auzoaren arteko 11 metroak arinduko ditu. Egurrezko egitura bat izango du eta kabina garden

ipiniko diote segurtasun bisuala handitzeko. Andoni Agirrebeitia alkateak esan du igogailua ipintzea "han bizi diren edadeko herritarren aspaldiko eskaria" dela eta obrari eskerrak "herriaren erdigunea" gertuago izango dutela. Lanek ia 780.000 euroko inbertsioa izango dute.



Aranzadik abenduan desobiratu zituen Aniceto Agirrebeitia gudariaren gorpuzkiak.

Aniceto Agirrebeitia gudaria omenduko dute Bizkargin

Domekan omenduko dute gudaria, Bizkargi Egunean

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Bizkargi Gogoratuz elkarteak hainbat ekitaldi antolatu du domekan egitekoa den Bizkargi Egunerako. Ekitaldi nagusia 12:30ean egingo dute, Aniceto Agirrebeitia Lazpita gudaria omenduta. Agirrebeitia berriztarra zen, Esteban Salsamendi batailoi komunista

hil zen borrokan, 26 urte zituela. Domekako omenaldian haren familiako kideek ere parte hartuko dute.

Bizkargi Egunari bertsolarien eta Kittu taldearen jardunek emango diote amaiera. Bizkargi Gogoratuz elkarteak adierazi du osasun neurri guztiak beteta egingo dituztela ekitaldiok.

Udalak lehiaketara aterako du Eleizaldeko tabernaren kudeaketa

Zerbitzu hori eman gura dutenek maiatzaren 17ra arteko epea izango dute eskabidea aurkezteko. Esleipendunak denboraldi bateko kontratua izango du

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Elorrioko Udalak Eleizaldeko kanpoko igerilekuetako tabernaren kudeaketa esleitzeko prozeduraren epea zabaldu du. Udan zerbitzu hori eman gura dutenek maiatzaren 17ra arteko epea izango dute Euskadiko Kontratazio Publikoaren plataformaren bitartez euren eskabideak aurkezteko.

Esleipendunak denboraldi bateko kontratuta izango du, ekainaren 14tik irailaren 19ra.

Eskabideak Euskadiko Kontratazio Publikoaren plataformaren bitartez aurkeztu beharko dira

Bestalde, udaletik azaldu dute modu positiboan baloratuko dutela tabernako zerbitzuak kudeatzeko eta ustiatzeko interesa dutenek aurkeztutako zerbitzu-proiektua: produktuen, prezioen, garbiketarako baldintzen, birziklatzea sustatzearen eta hondakinak gutxitzearen arloan, besteak beste.



Elorrioko Eleizaldeko igerilekua.



Joan zen astean onartu zuten berrikuspenagaz hastea.

Plan Orokorra berrikusten hasiko dira Elorrion

Udala osatzen duten hiru alderdiek aho batez erabaki zuten Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikustea

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Elorrioko Udala osatzen duten hiru alderdiek Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusteko prozesuagaz hastea erabaki zuten joan zen astean egindako bilkuran. "Badakigu HAPOn berrikuspena prozesu luzea dela eta datozen urteetan ere iraungo duela, baina lehenengo pausoa

emango dugu denon artean Elorrioko etorkizuna marrazteko eta erabakitzeko", azaldu zuen Idoia Buruaga alkateak.
Bestalde, Elorrioko EAJk prentsa ohar baten bitartez azaldu du gobernu taldeak hirigintzaren esparruan daukan "plangintza ezak" Elorrioko garapena "larriki oztopatzen" duela.

Atxondoko Udala pump-track zirkuitua eraikitzen hasi da

Gune berri hau eta bizikletak garbitzeko tokia udal liburutegiaren inguruan kokatu dituzte. Atxondoko Udalak 40.000 euro ipiniko ditu pump-track pista egiteko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Atxondoko Udala pump-track pista eraikitzen hasi da. Udaletik azaldu dutenez, lanak maiatz amaierarako egongo dira amaituta. "Jarduera honegaz, herriari aire zabaleko kirol instalazio berri bat emango diogu", azaldu du Xabier Azkarate alkateak. Pista honetan skate, surfskate, bizikleta, patin zein

monopatinekin ibiltzeko aukera egongo da.
Pump-track zirkuituaz gainera, bizikletak garbitzeko lehenengo gunea ere ipiniko dutela jakinarazi dute udaletik. "Gure helburua atxondarren eskariei erantzuten jarraitzea da. Behin baino gehiagotan esan digute Atxondon horrelako gune bat

egon beharko litzatekeela bizikletak garbitzeko", amaitu du alkateak.

Skate, surfskate, bizikleta, patin zein monopatinekin ibiltzeko aukera egongo da



Plazan egurrezko estaldura bat jarriko dute, besteak beste.

Maiatzaren 8an kaleko pintura lehiaketa egingo dute Berrizen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Maiatzaren 8rako, XXII. Kaleko Pintura Lehiaketa antolatuta dute Berrizen. Aurreko urteetan lez, aire librean egingo den lehiaketa izango da.
Irabazleak 600 euroko saria jasoko du, bigarrenak 500ekoa eta hirugarrenak 400ekoa. Herriko lehenengoa 300 euroko saria emango diote, lehenengo hiru sailkatuen artean ez badago.

Irabazleak 600 euroko saria jasoko du, bigarrenak 500ekoa eta hirugarrenak 400ekoa

Sari banaketa egunean bertan egingo dute Berrizko Kultur Etxean, 18:00etan.
Aurkezturiko lanak maiatzaren 8tik 21era bitartean erakutsiko dituzte, Berrizko Kultur Etxean.

Berrizko EAJk, EH Bilduk eta Podemosek urruntze politikaren amaiera eskatu dute

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Berrizko Udala osatzen duten EAJk, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek espetze politiken inguruko adierazpena sinatu dute. Hiru alderdiek hainbat eskari egin dute; tartean, urruntze politikaren amaiera eskatu

Udala osatzen duten hiru alderdiek espetze politiken inguruko adierazpena sinatu dute

dute. "Espetxeratu guztiak, orokorrean, eta pertsona preso bakoitza, partikularrean, hurbildu ditzatela euren familia inguruetik hurbilen dauden espetxeetara", azaldu dute hiru alderdiek adierazpenean.
Bestalde, hori betetzeak euskaral gizartean eta politikan iraganagaz loturiko "etapa bat ixten" lagunduko lukeela esan dute, eta biktimak gogoratuz bizikidetzaren demokratikoan oinarrituriko aro berri bat eraikitzen.

Berton Bertokoak dio lurretako institutuan ez dutela sukalderik ipiniko eta Atxondokoa 2022an eraikiko dutela

Dinamikak jakinarazi du Hezkuntza Sailaren aurreikuspenak aldatu egin direla. Zaldibarko eskolan sukaldea ipintzeko asmoak aurrera jarraitzen du

ESKOLA ELIKADURA • EKAITZ HERRERA

Eskoletako elikadura eraldatzeko asmoak beste bira bat izan du asteon. Berton Bertokoak jakinarazi du Hezkuntza Sailak aldatu egin dituela bere aurreikuspenak, eta Durangaldeko hainbat ikastetxe publikotan sukalde bana ipintzeko asmoak beste norabide bat hartu duela. Kontua hemendik dator: Atxondoko eskolan, Zaldibarko eskolan eta lurretako Juan Orobiogitia institutuan sukalde bana ipintzea aurreikusi zuen Hezkuntza Sailak. Lanok uda honetan egitea aurreikusi zuen. Halantxik jakinarazi zuen Berton Bertokoak eta halantxik jaso zuen hedabide honek.

Baina gauzak aldatu egin direla dirudi: Atxondoko eskolako sukaldea 2022ko udan ipintzea aurreikusi du Hezkuntza Sailak. Eta Juan Orobiogitian ipintzeko planak, ostera, ez du argirik ikusiko oraingoz. "Orain dela gutxi, Orobiogitiako ikastetxean sukaldea ez eraikitzea erabaki du Hezkuntza Sailak, jangela erabiltzen duten ikasleen ko-



Berton Bertokoa dinamikako hainbat kide, lurretan, martxoan egindako agerraldi batean.

purua jaitsi egin dela argudiatuta", esan du Berton Bertokoak. Atxondokoari buruz honako hau diote: "Sukaldea 2022ko udara atzeratzea erabaki duela komunikatu digute. Arrazoia, ez duela astirik udan obra egingo duen eraikuntzako enpresa kontratatzeko". Eskola elikadura-

ren aldeko dinamikak adierazi du "harrigarria" iruditzen zaiola sukaldea egitea urterik urte atzeratzen ibiltzea. Hori dela-eta, Atxondoko eta Juan Orobiogitiako sukaldeak "beregaitza" eraikitzen hastea eskatu diote Hezkuntza Sailari. "Ez dugu aitzakia gehiagorik gura. Duran-

galdeko eskola publikoetako familiek argi daukagu aspalditik. Eskola bat, sukalde bat, bertoko eta sasoiko produktuekin. Durangaldeko umeek, baserritarrek eta ingurumenak merezi dute", esan dute. Bestale, Zaldibarko eskolan sukaldea ipintzeko planak

bere horretan jarraitzen du. Uda honetan egingo dituzte lanak. Beste aldaketarik egon ezean, Durangoko Zabalarra eskolan 2022ko udan ipiniko dute sukaldea. Traña-Matienan ere ipiniko dute ezkaratza, baina, oraingoz, ez dago data zehatzik.

Kudeaketa ideia, bideoan

Sukaldeena ez da elikadurari loturiko asteko albiste bakarra izan. Izan ere, Berton Bertokoak bideo bat egin du eskola jantokiak kudeatzeko modu berri bat proposatuta. Proposamenaren arabera, eskola bera arduratuko litzateke jantokian eskaintzen diren elikagaiak kudeatzeaz. Horrez gainera, "udalek, Mankomunitateak, Landa Garapenak edo administrazio publikoak kontratatutako" behargin bat arduratuko litzateke baserritarrek koordinatzeaz. Proposamenak jasotzen duen beste atal bat menuen diseinuari buruzkoa da. Horretarako, Jangela Batzorde bat sortzea proposatu dute.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira

Izan zaitez berriemaile ere. Bidali zure argazki eta bideoak



Egoerak hobera egin du Otxandion, baina oraindino ia egunero daude positibo kasu berriak

Azken astebetean 11 kasu positibo detektatu dituzte Otxandion, aurreko astean (35) baino %70 gutxiago

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Ematen du apurka-apurka egoera hobierantz doala Otxandion. Datuek, behintzat, hori erakusten dute. Azken astebeteko datuak aurreko astekoak baino hobeak dira eta intzidentzia tasa ere beherantz egiten ari da, astiro bada ere.

Apirilaren 14an piztu ziren argi gorriak. Bost positibo egon ziren egun hartan, eta hurrengo egun bietan beste 15 gehitu ziren.


Otxandio itxialdian dago apirilaren 20tik hona eta horrela jarraituko du hurrengo astean ere



Horrela, astiro bada ere, intzidentzia tasa beherantz doa: 4.600ean jo zuen goia eta atzo 2.952an zegoen.

Otxandio itxialdi perimetralean dago apirilaren 20tik hona eta, datuak oinarri hartuta, horrela jarraituko du beste astebetean gutxienez. Osasun Sailak astelehenetan eguneratzen du itxialdian dauden herrien zerrenda. Horretarako, azken 14 egunetako datuak kontuan hartzen ditu eta lehenengo astebeteko datuen zama handiegia izango da oraindik.

Astebetean, 33 kasu pilatu zituzten. Hurrengo astean, apirilaren 21etik 27ra, egoerak ez zuen hobera egin eta 35 kasu atzeman zituzten; eguneko bost, batez beste. Apirilaren 28tik aurrera, osterara, egoerak hobera egin du. Egundik horretatik maiatzaren 4ra 11 kasu detektatu dituzte. Gainera, epealdi horretako egun bitan ez zen kutsatu berririk zenbatu.



Otxandioko udalbatzarrak Ruben Garateren senideek "pairatutako sufrimendua" aitortu du aho batez

Ettxerat-ek sartutako mozioa udalbatzarrean dauden alderdi biek (EH Bildu eta EAJ) onartu zuten apirileko plenoan

OTXANDIO • J.D.

Aurtengo otsailean 21 urte bete dira Ruben Garate 'Anselmo' hil zela. Alcala Mecoko (Madril, Espainia) kartzelan lagun bat bisitatetik bueltan hil zen, auto istripuan. Garateren nahiz

presoak bisitatzera joanda kotxe istripuan hildako beste 15 lagunen senideek euren jaioterrian aitortza merezi dutela-eta, hori bilatzen duen mozioa sartu du Ettxerat-ek, herri horietako udalbatzarrean eztabaidatu dezaten.

Otxandion, EH Bilduk eta EAJk aho batez onartu zuten mozioa azken udalbatzarrean.

Presoen problematikari erantzuna ematea bilatzen dute, "elkarbitzita demokratiko bat eraikitzeko"

Horrela, Ruben Garateren senideek "pairatutako sufrimendua" aitortzen du Otxandioko udalbatzarrak. Horregaz batera, askatasuna kentzeko zigorra dutenen deserrotzea saihesteko, desadostasuna erakutsi dute "urrunketaren espetze politikagaz". Bestalde, espetze politika "berri baten beharrezana" ikusten dute: "Zigortuak zigorra

errotze sozial eta familiarretik gertu betetzea ahalbidetzen duena, haien senideekin duten hartu-emanaren erraztu eta adingabeko seme-alaben eskubideak defendatzen duena, haien ongizatea bermatzeko", dio aho batez onartutako mozioak. Izan ere, pertsonak "urruntzea" haien senide eta lagunei ezarritako "zigor gehigarritzat" hartzen dute.

Honegaz guztiagaz, presoen problematikari "erantzuna ematea" bilatzen dute, hori egitea "ekarpen garrantzitsua" litzatekeelako "elkarbitzita demokratiko bat eraikitzeko".

Kotxe istripuan hildako senideen beste jaioterri batzuetan ere onartu dute mozioa, Lasarte-Orian, Sorluzen eta Tolosan, besteak beste.

Etxebizitzak alokairuan hartzeko diru laguntzak eskatu daitezke Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Maiatzaren 12ra arte, etxebizitzaren alokairua ordaintzeko diru laguntza eskaerak aurkeztu daitezke Mañariko udaletxean. Oraingo hau horrelako diru laguntzak ematen diren lehenengo aldia da, udaletik jakinarazi dutenez.

Diru laguntzaren zenbatekoa errentaren arabera finkatuko da eta kasu guztietan salbuespen egoeran daudenek izango dute lehentasuna, ordenantzak zehazten duenez. Etxebizitza udalerrian egotea eta udalean alta emanda egotea dira beste baldintza batzuk. Baldintza guztiak jasotzen dituen ordenantza udaletxean eskuratu daiteke. Eskaera orriak ere udaletxean daude.

Ekintzaileentzako diru laguntzak eskatu daitezke Mallabian

MALLABIA • J.D.

Lanbidek eta Debegesa garapen agentziak ekintzaileentzako diru laguntzak bideratu dituzte elkarlanean. Mallabia da eskaerak egin daitezkeen herrietariko bat. Negozio ideia bat lantzeko laguntza 1.000 eurokoa izango da gehienez sustatzaile bakoitzeko, eta enpresa-proiektuak martxak jartzeko, osterara, 1.500 euro sustatzaile bakoitzeko. Eskabideak maiatzaren 14ra arte egin daitezke ekintzaile@debegesa.eus helbide elektronikoan.

Mantentze-gimnasia bueltan da Izurtzan, eta tokia dago talde berriak sortzeko

IZURTZA • J.D.

Mantentze-gimnasia klaseak bueltan dira Izurtzan. Orain aste bi hasi zituzten, lau laguneko talde batez. Martitzenero batzen dira, jubilatuen lokalean. Mankomunitateko nagusien sailak antolatzen ditu eta lau taldeak batu daitezke gehienez. Udaletik adierazi dute badagoela talde berriak sortzeko aukera. Interesa duena jubilatuen elkarteagaz edo Mankomunitateagaz ipini daiteke hartu-emanetan.



Apirileko udalbatzarrean onartu zuten mozioa Otxandioko Udalean.



Joan zen domekan, Durangaldeko abesbatzek elkarretaratzea egin zuten Ezkurdin.

"Abesbatzek abestea segurua da segurtasun neurriak betetzen badira"

Eskualdeko abesbatzek protesta egin dute elkarte hauen jarduera baimendu dezaten

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA
Euskal Herrian federatutako abesbatzak hainbat mobilizazio egi-
ten dabilta entsegu koraletako
jarduera aurrez aurre egin ahal
izateko. Joan zen domekan, Eskual-
deko hainbat taldek bat egin zuten
Durangoko Ezkurdin deituriko
elkarretaratzeagaz. Durangoko Or-
feoia, Bogoroditsie, Doinu Zahar,
Begi Argiak, Iurretako Koroa eta

Mañariko Koroa izan ziren protes-
tan. Mallabiko abesbatzek bat egin
zuen ekimenagaz, baina itxialdi
perimetralaren ondorioz ezin izan
zuten parte hartu.

Abesbatzarik gehienek ez dute
entsegu presentzialik egiteko auke-
rarik izan 2020ko azarotik. "Jardue-
ra koralararen aurkako demonizazio
kanpaina bat sufritu dugu komuni-
kabideen aldetik", azaldu dute abes-

batzetako kideek protestak egiteko
adostu zuten manifestuan. Beste
taldekako kultura eta kirol jarduera
federatuak dagoeneko baimenduta
egonda, federatutako abesbatzena
etenda egotea ez dutela ulertzen
gaineratu zuten. Kantu korala "sis-
temaz" debekatzea kritikatu dute.
Era berean, segurtasun neurriak
beteta, kantatzea segurua dela alda-
rrikatu dute.

380.000 euroko inbertsioa sei proiektu gauzatzeko lurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Iurretako Udalak kreditu alda-
keta egin du inbertsioa 380.000
euroan handitzeko. Horrela,
honako sei proiektu hauek gau-
zatuko dituzte: saihesbideko
zubitik (hiltegitik) Santa Apo-
loniaraino doan errepide zatia
hobetuko dute; gaur egun itxita
dagoen Askondo eta Dantzari
arteko kale zatia zabalduko
dute; auzoetako postontziak
aldatuko dituzte, ikasgela ego-
kitzeko proiektua gauzatzeko
dute; adinekoen etxean irisga-
rritasun-obrak egin eta leiho
eta altzariak aldatuko dituzte;
eta Bideondo birpartzelatzeko
eta urbanizatzeko proiektua
idatziko dute.

EH Bilduk aldaketa honen
kontrako botoa eman zuen.
"Proiektu hauen lehentasun
edo egokitasun zein formari bu-
ruz eztabaidatzeko aukerarik
ez dugu izan. Kontra bozkatu
dugu. Ez proiektuen edo inber-
tsioen aurka gaudelako, politika
egiteko modu hau ez dugulako
konpartitzen baino".

Garaiko zerbeza dastaketak arrakastatsuak izaten ari dira

GARAI • EKAITZ HERRERA
Arrakastatsuak. Berba horregaz
definitu daitezke Garai garagar-
do etxearen zerbeza dastaketak.
Ibon Berriozabalgoitia ardu-
radunak balorazio "ona" egin
du. "Jendeak gustura irteten du
dastaketatik. Bisitariak esker
oneko daude egitasmoagaz,
plan desberdin bat egiteko auke-
ra eskaintzen duelako. Garagar-
doa zelan ekoizten den azaltzen
dugu eta gehitxoago jakinda
irteten dute", azaldu du.

Garagardo etxeak apirilean
ekin zion zerbeza dastaketak
antolatzeari, eta leku guztiak
bete ziren horietan parte har-
tzeko. Jendearen eskaria nabar-
mena da. Hori dela-eta, maiatz
honetan ere beste hainbat das-
taketa egingo dute. Gaur izango
da bat, hilak 7, eta, 14an, 22an
eta 28an ere egingo dituzte. Jar-
dunaldietan parte hartzeko "le-
ku apur batzuk" geratzen direla
jakinazi du Berriozabalgoitia.
Interesdunek 685777398 tele-
fono zenbakian egin dezakete
erreserba.




Azkeneko etxebizitza



ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com

GARAJEA ETA TRASTELEKUA BARNE



Abadiñoko Katalamixon aisialdi elkarteak salatu du urtebetetik gora daramala "itoginak noiz konponduko zain"

Hezetasuna eta itoginak dituztela azaldu dute; itoginen ondorioz, ia argirik ez dutela kexatu dira eta "zirkuitulaburren beldur" direla adierazi dute



Nerea Zarandona Katalamixoneko kidea, biltegi kanpoaldetik ikusi daitekeen hezetasun orbanera begira.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Biltegiaren ate ondoko orban hezeak erakusten du egoera ez dela normala. Barrualdekoa, baina, ez da hobe: lau balde daude behean, itoginen azpian; hezetasun-ken-gailua martxan dabil egun osoan zehar; eta argiteriaren erdia ez dabil. "Zirkuitulaburren bat egon

zen, eta ordutik ez dute funtzionatzen". Urtebete baino gehiagotik hona egoera "penagarria eta arriskutsua" dela azaldu du Nerea Zarandona Katalamixon aisialdi elkarteak, eta taldearen jarduna baldintzatzen duela azaldu du. "Beharrezkoa dugun material guztia hemen dago: kartulinak,

"Egoera penagarria eta arriskutsua da; zirkuitulaburren bat egon zen eta ia argirik barik gaude"

margoak, mozorroak... udalekuak zein urte osoko ekintzak egin ahal izateko beharrezkoa dugun dena. Materiala herriaren diruagaz erositakoa da, udalak ematen digun diru laguntzagaz", kexatu da. Materialaren zati handi bat "usteltzen" hasi dela ere salatu gura izan dute. "Dirutza bat dago

materialetan, eta hori galtzea penagarria litzateke", azaldu du Zarandonak.

Katalamixoneko kideek salatu dute urtebete baino gehiago daramatela egoera honetan. "Itoginak-eta agertzen hasi ziren orain urtebete baino gehiago, eta teilatuko plakak ere orduan hasi ziren jausten; gero, martxoko itxialdia etorri zen eta lokal gaineko taberna itxita eduki zuten. Tarte hori hondatutakoa kon-

"Aisialdi talde lez beharrezkoa dugun material guztia hemen dago"

pontzeko baliatuko zutela agindu ziguten, baina arazoak bere horretan jarraitzen du", azaldu du Zarandonak egoeragaz kezkatuta. "Ez dugu ulertzen hainbeste denboran itxaroten egon behar izatea. Ez dugu eskatzen udalak bere poltsikotik ordaintzea. Udalak zein biltegi gaineko tabernak aseguruak edukiko dituzte, eta euren artean berba egitea baino ez dugu eskatzen. Urtebete daramagu egoera honetan, eta arriskutsua da, umentzat batez ere", esan du.

Zaldibarko herritar talde bat antolatzen hasi da parkeko hotela ez botatzea eskatzeko

Parkeko hotela Las Hermanas edo Mojen Etxea lez ere ezaguna da Zaldibarren; joan den egunean dozenaka herritar batu zen udaletxe parean egindako protestan

ZALDIBAR • A.M.

Herritar talde bat mobilizatzen hasi da parkeko hotela bota ez dezaten eskatzeko. Batzar bi eta elkarretaratze bat egin dituzte, baita eraikinari buruzko informazioa ezagutarazteko ekimenak ere. "Zaldibarko Udalak eraikina botatzeko aukera esku artean duela ailegatu zaigu; guk ez dugu gura eraikina botatzea. Uste dugu balio arkitektoniko handia duela eta eraikinean bertan gauza asko egin daitezkeela", azaldu zuten elkarretaratzearen ostean. Maiatzaren 12rako beste batzar batera deitu dute, "hurrengo ekimenak zehazteko"; 19:00etan izango da, liburutegi zaharrean.



Apirilaren 29an Zaldibarko udaletxe aurrean egindako elkarretaratzea.

Matienako pediatria zerbitzuari eusteko eskaera

Matienako pediatriak erretiroa hartuko du eta bere plaza beteko ez duten susmoa dutela azaldu du EH Bilduk

ABADIÑO • J.G.

Matienako Osasun Zentroko pediatriak erretiroa hartuko du maiatzaren amaieran. Osakidetzaaren planak ezagutzeko, Abadiñoko Udalak bilera eskatu du Barrualde - Galdakao ESiko arduradunekin. EAJren eta Airen udal

gobernu taldeak "ezinbestekotzat" jotzen du gaur egungo titularrak libre utziko duen plaza "ahalik eta lasterren" betetzea. EH Bilduren esanetan, inguruko herrietan ere igarriko da galera. "Eskualde modura erantzun behar dugu, batuta", esan dute



Matienako Osasun Zentroa.

'Jantzari' dokumentala proiektatuko dute Durangoko Zugazan eta Berrizko Kultur Etxean

Tradizioa eta parekidetasuna lantzen dituen ikus-entzunezkoa hainbat herritan proiektatu dute; Durangaldeari dagokionez, maiatzaren 13an Durangoko Zugaza zineman emango dute, eta maiatzaren 16an Berrizko Kultur Etxean

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Joan zen irailean *Jantzari* dokumentala estreinatu zuten Iurretan. Harrezkero, Euskal Herriko hainbat areto eta zinematlan proiektatu dute.

Hurrengo hitzorduei dagokienez, maiatzaren 13an Durangon emango dute, Zugaza zineman, 17:00etan eta 19:00etan. Emanaldiaren aurretik, Iurretako dantzariak eta Kriskitin dantza taldeko kideek berba hartuko dute.

Berrizen maiatzaren 16an proiektatuko dute, Kultur Etxean, 19:00etan. Iurretako dantzariak gainera, dokumentalean parte hartzen duen Ireminen taldeko Amaia Uzuriagak ere parte hartuko du sarreran. Era berean, azpimarratzekoa da ikus-entzunezkoan agertzen den errekreazio batean Berrizko San Lorentzo dantza taldeko umeei parte hartzen dutela.

Dantza eta parekidetasuna

Dantza tradizionalean aldaketa handiak gertatu dira azken urtee-

tan genero ikuspuntutik. Gaur egungo errealitateari egokitzen joan dira apurka. Esaterako, Iurretaren kasuan, 2018an ezpatadantzari talde parekide batek debutatu zuen Iurretako plazan lehenen-

goz, San Migel egunean. Garapen hori *Jantzari* dokumentalean jaso da Iurretako dantza taldearen, Bideografik ekoiztetxearen eta ANBOToren arteko elkarlanari eskerrak.

Dokumentalak Miren Bikandi, Juan dantzari maisu iurretarraren alabaren figura azpimarratzen du. Bikandik Iurretako dantzei egingako ekarpena ezagutzera ematen du.



Iurretako dantza taldearen emanaldia.

'Jantzari': emanaldiak Durangaldean

Durangoko Zugaza zineman

- Maiatzaren 13an, 17:00etan eta 19:00etan

- Sarrerak hartzeko:

zinezugaza.sacatuentrada.es

Leihatilan

Zugazako sarreraren makinan

Berrizko Kultur Etxean

- Maiatzaren 16an, 19:00etan

- Sarrerak egunean bertan, ordu erdi lehenago leihatilan

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2021-2022

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKO
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



Iker Macías López. Durango. Sareko Informatika Sistemen Administrazioa (ASIR) 2.maila

Eskaintza akademikoa

Ate irekien jardunaldiak

•Automatizazioa eta Robotika Industrial	Maiatzak 29 11:00
•Mekatronika Industrial	
•Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa	
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	

www.mondragon.edu/gmh orientazio.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

Zergatik aukeratu zenuen goi mailako ziklo hau? Eta zergatik MGEP?

Batxilergoa amaitzerakoan ez nekien ziur zer ikasi nahi nuen. Baina informatika pixka bat gustuko nuen goi mailako ASIR zikloa egitea erabaki nuen.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko ate irekietara etorri nintzen eta ikusi nuen eskaintzen zituen instalazioak oso onak zirela. Eta zikloa nola zegoen egituratuta gustatu zitzaidan.

Ni Durangokoa naiz, ordutegi aldetik ere ez zegoen arazorik autobusez etortzeko, nahiz eta autoz etortzea errazagoa zen, beraz animatu nintzen.

Bi ikasturte hauetan zehar, ikaskideekin giro oso ona egon da. Denok informatika gure gustuko, beraz zaletasun hori partekatu dugu. Lanak egiterako orduan, ere giroa ezin hobea izan da, denok prest gure artean elkarri laguntzeko.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, ekipo-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer nolako erronkak egin dituzue?

Taldeetan egin ditugun erronkak oso praktikoak eta interesgarriak izan dira. Hiruhilekoetan zehar ikasi duguna praktikan jartzea asko lagundu dit hainbat informatikako arlotan konpetenteagoa izateko.

Nik esperientzia hau era oso modu positiboan baloratuko nuke, indibidualki ikasgai bakoitzean ikasten duzuna proiektu batean bateratzea oso baliagarria egiten baita.

DUAL formazio programan ari zara, kontatuko diguzu zure esperientzia?

Formazio DUALa izan da hasieratik nire helburua. Orain, INYCOM enpresan nago DUALean.

INYCOM bitartez Mondragon Unibertsitateko Goi eskola politeknikoko informazio sistemetako sailan nago momentu honetan lanean.

Hasieran, enpresaren funtzionaltasuna ezagutzeko eta honen IKT azpiegitura ezagutzeko egin behar izan ditudan lanak nahiko mekanikoak izan ziren. Hau da, hainbat IKT konponketa/zeregin iristen ziren, horiek ulertzea, erantzun tekniko bat definitzea, burutzea eta, ondoren, martxan jartzea ziren batik bat nire ardurak.

Hasieran egin behar izan nuen lanetako bat izan zen adibidez sare-puntuen inbentarioa. COVID-19 delakoagatik jende askok ikasgelara birtualki konektatzeko beharra zuenez, ezinbestekoa zen irakasleek internetarako konexio on bat izatea.

Horri esker enpresaren sarearen azpiegituraren funtzionamendua ikasi nuen.

Gainera, sare-puntuen altak nola eman ikasi nuen, nola inbentariatu eta hauek konfiguratu ere.

Aurrerago, enpresari buruzko ezagutza handiagoa lortu nuenean, web-garapenera bideratutako lanak egiten hasi nintzen. Adibidez, jantokietako web-aplikazio bat konfiguratu dut, ikasgeletako eta talde-lanerako geletako erreserbak kudeatzeko. Horrekin batera, intranetean aplikazioa ezartzeko prozesua ikasi dut.

Oso eroso sentitu naiz enpresan hasiera-hasieratik. Dena xehetasun handiz azaldu didate beti, laguntza eskaini didate, eta zalantza-zen bat izan dudanean ere lagundu didate.

Era berean, nolabait independentzia eman didate zeregin batzuk egiterakoan, neure kabuz ahalik eta gehien ikasten saia nendin. Astero zerbait desberdina egiteko izaten dut beraz, ez dut tarterik aspertzeko!

Zer ikasi duzu enpresan?

Enpresan autonomia eta nire betebeharrak autokudeatzen ikasi dut. Baita ere web aplikazioen funtzionamendu egokiaren mantentze-lanen ardura izan dut, beraz kalitatearen garrantzi handia ulertzeko gai izan naiz.

Aukera izan duzu egin duzun lanean, goi mailako zikloan ikasitakoa erabiltzeko?

Bai, zikloan ikasi ditudan gauza asko erabili ditut lanean eta ezagutza horiek handitu ditut baita ere.

LAMP zerbitzariak konfiguratzeko, datu baseak eguneratzeko eta sare puntuko konfigurazioa ezartzea horren adibide onak dira.

Orain daukazu ikuspuntuarekin, zein asmo duzu hurrengo ikasturterako?

Hurrengo ikasturtean informatika ingeniariatza graduak ikasi nahi dut. Nik uste dut, graduak nire informatikako ezagutzak asko hobetuko dituela.

Durungaldeko hogeitontorretara igoko dira euskal preso eta iheslarien etxeratzearen alde

Izan Bidea ekimenaren barruan, Euskal Herriko 650 tontor igoko dituzte zapatuan



Sareren ekitaldia.

DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO

Izan Bidea dinamikaren barruan, Sarek Euskal Herriko 650 tontorretara igotzeko deialdia egin du maiatzaren 8rako. Tontor horietariko 20 Durungaldean daude.

Sareren ustez, egungoa une aproposa da euskal preso eta iheslarietara ezartzen dizkieten "salbuespenezko legeei" amaiera emateko, eta, horretarako, euskal jendar-tearen eta erakundeen arteko adostasuna ere baliatu behar da. "Dinamika honek euskal preso eta iheslarien etxeratzearen alde egiteko asmoa du, eta baita elkarbi-

zitzaren eta bakearen alde gauden herritarrak batzeko asmoa ere, urratsak emanez bidea izan gaitez. Gizarte aktibazioa eta instituzioekin lanketa uztartuz, auzi honi behin betiko irtenbidea eman gura

Sareren esanetan, 4.400 lagunek izena eman dute zapatuko ekimenean parte hartzeko

diogulako", azaldu du Sarek ohar baten bitartez. Sareren esanetan, 4.400 lagunek izena eman dute ekimenean. "Inoiz egin den tontor igoera bateraturik handiena egingo dugu Euskal Herrian", adierazi dute. Amaitzeko, preso eta iheslarien alde "bidea izan gura duten guztiei" dei egin diete maiatzaren 8ko deialdietara batzeko.

Politikan

Mariam Bilbatua
EH Bildu



Oroimena

Durangoko bonbardaketa oroitzeke programak mota desberdinetako ekimenetan parte hartzeko aukera eman digu: testigantzak, irakurketak, solasaldiak, erakusketak... Bonbardaketan bizitakoak ezagutzeaz gain, gaur egungo munduko gatazkaren oinarrian dauden arrazoiak ezagutzeko eta, ondorioz, begirada solidarioagoa garatzeko aukera ere eskaini dizkigu aipatutako programak.

Martxantere egindako omenaldian txikitako oroimenak partekatzeke aukera izan dugu. Orduko emakumeen lan baldintza gogorren testigantzak jasotugu eta, zoritxarrez, gaur egun ere, zenbait sektoretako emakumeek bizi duten lan prekarioekin parekatu daitezkeela ikusi dugu.

Durangoko Udalak sortu duen migrazioaren bekaren berri ere izan dugu hilabete honetan. Beka honetatik sortuko den lanak 1950eko hamarkadatik aurrera estatutik etorritako pertsonen orduko errealitatea jasoko du eta Durangoko bilakaeran hain garrantzitsua izan zen gertakaria hobeto ezagutzeko aukera emango digu.

Apirila amaitzeaz zela "Amaren Intxaurrak" ekitaldiari lotuta gereziondo baten landaketan parte hartu genuen haur eta helduok. Hildakoak gogoratzeke espazio bat sortzeaz gain, bizitzaren balioaz jabetzeko tresnak partekatu genituen: kantak, olerkiak, dantzak. Une zoragarria bizitzeko aukera eskaini zigun Porrotx pailazoak gidatutako ekitaldiak.

EH Bildun ziur gaude aukera hauek guztiak baliagarriak egingo zaizkigula Durango hobe bat eraikitzeko. Izan ere, izan garena ezagutu behar dugu izan nahi dugunak sustrai sendoak izan ditzan.

Durungaldea asteen

2,2 milioi euroko inbertsioa egingo dute Muntzaratz-Zelaieta bidea eraberritzeko

Abadiño I Lanek kilometro biko tarteari eragingo diote: espaloak zabaldu, zebrabide berriak egin eta argiztapen berria ipiniko dute, besteak beste. Eta, bide batez, trazadura guztia berrituko dute. Lanak 2021eko hasieran hasi gura dituzte. Bizkaiko Foru Aldundiak 1,2 milioi euroko ekarpena egin du obrak finantzatzeko; gainerakoa Abadiño Udalak ordainduko du.

Mugarra Triatloi Taldeak udalekuak egingo ditu ekainaren 28tik aurrera

Durango I Mugarra Triatloi Taldeak udalekuak antolatu ditu aurtun ere. 8tik 14 urtera arteko umeei bideratuta daude eta ekainaren 28tik uztailaren 23ra izango dira. Udalekuak 09:00etatik 13:00etara izango dira. Astean behin arratsalde erdira arteko irteera bereziak egingo dituzte. Informazio gehiago jasotzeko: mugarrratt.com.



SUSANA ETXEBARRIA



Domekan emitituko dute Etxanon grabaturiko 'Herri Txiki' programa

Zornotza I Euskal Telebistako 'Herri txiki, infernu handi' telebista saioaren programa Etxanon grabatu zuten otsailean. Zuhaitz Gurrutxagak eta Mikel Pagadizabalek elkarrizketatu zituztenekin programa grabatu zuten Etxanoko elizan. Ohikoa den moduan, Xebastian Lizaso bertsolariak ere parte hartu zuen grabazioan. Emaizta domeka iluntzean ikusi ahalko da ETB1en.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturritza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Herriko gudarien kalea, 10. behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



M	I		K	D	E
E		D	I		
D	U	I	E	M	
K		E		I	U
	D	K	M	E	
I		M	U	K	D

SUDOKUA

Osatu lauki zuri hauek MEDIKU hitzaren hizkiekin (M, E, D, I, K eta U).

Zutabe, lerro eta esparru bakoitzeko hizki bakoitza behin bakarrik agertu daiteke.



LEKUZ KANPO

Beheko irudian lekuz kanpo dauden objektu batzuk daude. Zeintzuk?
Kolare bakoitzeko zenbat izar zenbatzen dituzu?













DIFERENTZIAK

Topatu hamar diferentziak.




EGOKIA TOPATU

Erradiografia hauetatik guztietatik zein dago ondo?




LABIRINTOA




ZEIN DA ZEIN?

Lotu ezazu animalia bakoitza dagokion origamiagaz.



ORIGAMI

Jarraitu pausoei eta igela egingo duzu.



MARGOTU

Margotu beheko irudia gurago duzun moduan.



HAU EZ DA NIRETZAT

Beste guztiontzat den websaila.



APIRILAREN 16TIK
AURRERA
anboto.org
WEBGUNEAN

ttap


Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure
mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: **ttap.eus**

 **DESKARGATU**
Play Store-n

 **DESKARGATU**
APP Store-n



Instalatu orain!



‘Cabezas de cartel’

ANTZERKIA **ELORRIO :: Maiatzak 7**

Obra baten sortze prozesuan barreiatzeko aukera, Arriolan

Aske izateari buruz, zuzen jokatzeari buruz antzezlanaren prestatzen diharduen antzerki konpainia txiki baten gorabeherak ekarri ditu oholtzara Perigallo Teatro konpainiak. Sormen prozesuaren momentu kritiko batera eramango gaituzte *Cabezas de cartel* antzezlanean: printzipio eti-

koak eta garrantzitsuak sentitze-ko beharrak aurrez aurre ipiniko diren momentura eramango du ikuslea Perigallo Teatrotik, obra berri baten sortze prozesuan emandako une pribatu horren ikusle izatera gonbidatuz. Celia Nadalen eta Javier Manzaneraren eskutik, Arriola antzokian, 19:00etan.

Maiatzaren 7an

ABADIÑO poesia
Poesia errezitaldia,
Eibarko Poesia... eres tu taldearen eskutik,
19:00etan, Errota kultur etxean.

Maiatzaren 8an

BERRIZ antzerkia
‘¡Ese no!’ (Banarte),
19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
‘Maitasunaren itxiera’
(Eneko Sagardoy eta Miren Gaztañaga),
19:00etan, San Agustin kulturgunean.

OTXANDIO bertsoak
Durungaldea
uztabarritzen bertso zirkuitua: Igor Galarza, Aitor Bizkarra, Ander Sarriugarte eta Maialen Lujanbio, 18:00etan, Andikona plazan. Gai-jartzailea: bertso eskolako kideak. Sarrerak 17:00etan eskuragarri.

ZORNOTZA antzerkia
‘Crusoe’ (Markeliñe konpainia), 18:00etan, Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 9an

DURANGO antzerkia
‘Maitasunaren itxiera’
(Eneko Sagardoy + Miren Gaztañaga), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO lan saioak
‘Plateruena ta gero zer?’
lan saio monografikoak:
‘Zelan parte hartu?’,
10:30ean, Zabalarra eskolan.

Maiatzaren 13an

DURANGO dokumentala
‘Jantzari’ dokumentala,
17:00etan eta 19:00etan,
Zugaza zineman.

Maiatzaren 14an

ABADIÑO kontzertua
Demode Quartet,
19:00etan, Probalekuan.

ELORRIO kontzertua
‘Garai zuri beltzen swing’
(Bart Bax!), 19:00etan, Arriola antzokian.

MAÑARIA kontzertua
Unidad Alavesa,
18:30ean, Herriko Plazan.

ZORNOTZA bakarriketa
Bocabeats, inprobisazioa eta beatbox-komedia,
19:00etan, Zelaieta zentroan.

Maiatzaren 15ean

ABADIÑO kontzertua
Zetak, 19:00etan, Probalekuan.

ELORRIO lehiaketa
Akadantza Kale
Dantzen XIII. Lehiaketa,
16:00etan, Arriola antzokian.

ZALDIBAR dokumentala
‘Bideak’ dokumentala,
17:30ean, liburutegi zaharrear.

Maiatzaren 16an

ABADIÑO antzerkia
‘Ametsen urtebetetzea’
(Kantu Kolore), 16:30ean, Probalekuan. Bigarren emanaldi bat egongo da, 18:30ean.

BERRIZ dokumentala
‘Jantzari’ dokumentala,
19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
‘Etixerik txikiena’
(Yarleku), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

MAÑARIA kontzertua
Xabi Solano, 12:00etan, Herriko Plazan.

Maiatzaren 29a bitartean

ABADIÑO erakusketa
Jose Mari Gastelu-Urrutiaren margolanak,
Errota kultur etxean.

Zinema

:: Abadiño

ERROTA KULTUR ETXEA

• **Sablehortz kapitaina eta diamante magikoa**
domeka 9: 17:00

:: Berriz

KULTUR ETXEA

• **La librería**
barikua 7: 19:00
domeka 9: 19:00

:: Durango

ZUGAZA

• **El olvido que seremos**
barikua 7: 18:45
zapateria 8: 18:45
domeka 9: 18:45
astelehena 10: 18:45
martitzena 11: 18:45
eguzitena 12: 18:30

• Aquellos que desean mi muerte

barikua 7: 19:30
zapateria 8: 17:30/19:30
domeka 9: 17:30/19:30
astelehena 10: 17:30/19:30
martitzena 11: 17:30/19:30
eguzitena 12: 18:30



• Quo vadis, Aida?

barikua 7: 18:45
zapateria 8: 18:45
domeka 9: 18:45
astelehena 10: 18:45
martitzena 11: 18:45
eguzitena 12: 18:30

• Earwig y la bruja

zapateria 8: 17:00
domeka 9: 17:00

• Sablehortz kapitaina eta diamante magikoa

zapateria 8: 17:00
domeka 9: 17:00

:: Elorrio

ARRIOLA

• Una joven prometedora

zapateria 8: 19:00
domeka 9: 19:00
astelehena 10: 19:00

:: Zornotza

ARETOA

• Cuñados

domeka 9: 19:00
astelehena 10: 19:00
• **Igelen erresuma**
domeka 9: 12:00

Hemen eta online



Sartu **anboto.org**-en
menuan **iragarkiak**
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta
iragarkilaburrak.eus orrialdera eramango zaitu



Zure datuak sartu
eta **erregistratu**
egin behar zara.



IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik
egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura
dituzun datuak eta gorde datu horiek.
Agertzeko, herria aukeratzekoan
ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira **anboto.org**-en



HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA / NEGOZIOAK
DENERIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA / KIROLA
FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.
Erregistratu **www.anboto.iragarkilaburrak.com** webgunean
eta ipini zure iragarkia (Agertzeko, herria
aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik
bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio
eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

“Emanaldi bakoitza amildegira jauzi egiteko sentsazio ikaragarria da”

Eneko Sagardoyk eta Miren Gaztañagak Pascal Ramberten 'Clôture de l'amour' lanaren euskarazko egokitzea dakarte Durangora; emanaldi bi eskainiko dituzte, zapatuan eta domekan, eta bietarako sarrera guztiak salduta daude



Eneko Sagardoy Mujika

Aktorea

DURANGO | 1994

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO
Eneko Sagardoyk lan martxa frenetiko darama azken asteetan. Joan den asteburuan 'Maitasunaren itxiera' Arriagan estreinatu ondoren, Bartzelonan egon da 'Mia y Moy' pelikularen aurkezpenean, eta filmazio batera bidean hartu du tarte bat ANBOTOren galderei erantzuteko. Asteburuan 'Maitasunaren itxiera' antzezlanean emanaldi bi eskainiko ditu Durangon. Gogotsu dago "inoiz egin ez duen moduko" lan hau San Agustinen, "etxean", aurkezteko. "Ia Arriagan estreinatzeak baino errespetu handiago ematen dit", dio.

Zelan joan zen Arriagako estreinua?
Aspaldi ez nuen horrelako beldurrik sentitu estreinu batean.

Fisikoki asko arriskatzea eskatzen duen obra da, hasi eta amaitu taula gainean zaudelako. Sei hilabetean ikasi eta ikasi egon gara, eta gero bederatzi egunetan muntatu dugu antzezlana Pascal Rambertegaz. Oso zuzendaritza soila egiten du beti. Kasu honetan, mugimendu eszenikoa oso lotuta dago. Hain mugatua ze, diagonalean soilik mugitzen garela aktoreak. Hizlaria berbetan dagoenean bestea geldigeldi dago; beraz, eszenario osoa betetzea dagokio. Berak ematen ditu pautak batzuk, non pausatuta, non hurbildu, non urrundu, eta gero askatasun osoa ematen dizu aktoreez. Bere esanetan, emanaldi bakoitza desberdina izango da, aktoreak duen egunaren arabera.

Publikoari dagokionez, oso ukituta irteten du emanalдитik, ia berbarik barik, baina hurrengo egunetan heldu zaizkigu mezuak, eta publikoa oso pozik geratu da. **Aktore lez asko exijitzen duen obra da, beraz.**

Bai, dudarik barik. Esango nuke antzerkian nire karrerako proposamenik arriskatuena eta exigenteena dela. Emanaldi bakoitza amildegira jauzi egiteko sentsazio ikaragarria da. Eta, egia esan, gozamen ikaragarria ere bai. Sartu, eta badakizu bakarrikzeta bi dituzula aurretik, bata hitzekoa eta bestea entzumenezkoa. Entzumenezkoa testua bezain garrantzitsua da, zure lankidea horretan sostengatzen delako

eta horren arabera erantzuten duelako.

Aurretik Miren Gaztañagaz lan egin izanak lagunduko zizun, beraz. Niretzat Miren inspirazio bat da teatroan, baina errealitatean arrebata bat edukitzearen modukoa da. Bera izan zen "zentzubakokeria" hau proposatu zuena Arriagan, eta, beraz, bera da hemen hau eskaintzen egotearen "errudun" nagusia. Guk obra elkarrengatik ikusi genuen, eta inpakaturik irteten genuen. Antzezlana bera euskaraz egiteko gogoz geratu ginen. Pascal Rambert hona ekartzea prozesu luzea izan da, baina beragaz lan egitea ohore bat aldi berean. Orain, Mirenenztzat eta biontzat espreski obra bat

idazten dabil. Munduan errekonozimendu handia du, eta orain berak esatea langile finak garetzela da.

Testua zuk euskaratu duzu.

Lanean geldialdi bat baliatuta, frantsesa ikasten nengibela, testua euskaratzeari ekin nion, testu originala eta gaztelaniazkoa hartuta. Aktoreetarikoa bat obra itzultzen zebilela ikusteak kuriositatea piztu zion Pascali; eta gero, berak dio

Obra euskara batuan egitea hautua da; erakutsi gura dugu euskara batuan egitea euskalkian egitea bezain sinesgarria, bizigarria eta aberatsa dela

euskara bere estatuko (frantziarra da) hizkuntza bat dela. Erronka bat izan da euskaratzea; testuak ez du punturik edo komarik, eta hizkera poetikoa darabil. Gainera, fikzioaren eta errealitatearen arteko mugak lausotzera jolasten du. Pertsonaien izenak, adibidez, gureak dira, eta ez du gura izaten pertsonaiak guk eraikitzea, sortzea, gurago izaten du egun horretan gu geu garen modukoak izatea, betiere gidoiari jarraituta, jakina. Eta gero, euskara batuan egitea hautu bat izan da, apustu bat. Uste genuen euskalkian egiteak ez ziola mesederik egingo ez antzerkiari, ez euskarari, ez gure herriari. Erakutsi behar dugu euskara batuan egitea euskalkian egitea bezain sinesgarria, bizigarria eta aberatsa dela.

Obra gordina da, eta pertsonaiak zuen bizipenetatik eraiki dituzue. Horrelako prozesu batean, sufritu ala gozatu egiten da?

Nik ezin dut sufritu lanean. %100 disfrutatu behar dut, hiltzen nautenean zein hiltzen dudanean. Motorra beti izan behar da gozamen. Fisikoki eta mentalki ia ordu biko esfortzu ikaragarria da, baina oso eskertuta sentitzen naiz. Emanaldi egun bakoitza gogorra da eta indarrak gordetzeko gomendatu zigun Pascalek.

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era
Zenbaki hauekin emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37
Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o

BIZIA MIN
Jon Ander Urkiaga
(Luces de Gálbo)

2^o

MIÑAN
Ametz Arzallus & Ibrahima Balde
(Susa)

3^o

ARROZ UREZ
Mikel Antza
(Txalaparta)

4^o

MENDEKUAREN HAZIA
Alberto Ladrón
(Elkar)

5^o

TURISTA KLASA
Kattalin Miner
(Susa)

Euskarazko kulturgintza digitala sustatzea izango da 4. Sormen Bekaren oinarria

Interesa dutenek irailaren 21era arte edukiko dute epea euren proposamenak aurkezteko; 15.000 eurokoa da laguntza

DURANGOKO AZOKA • A.M.

Gerediaga elkarteak eta Durangoko Udalak laugarren Sormen Bekaren deialdia publikatu dute. Proposamenek euskarazko kulturgintza digitala izan behar dute oinarri. "Praktika edo espresio artistiko batean oinarrituriko lan digitala sarituko dute aurten. Gure egunerokoa eraldatzen da-

bil eta euskarri digitalak geroago eta presentzia nabariagoa du gure arloan ere. Euskal kulturgintzak bere lekua behar du mundu digital horretan eta Sormen Beka hau bultzada izan behar da horretarako", azaldu zuen Nerea Mujika Gerediaga elkartearen presidentea martitzenean egindako prentsurrekoan.

Ane Abanzabalegi eta Mikel Uriguena zinegotziek nabarmendu dute Sormen Bekagaz kultur sorkuntzari egin gura diotela ekarpena. "Sorkuntza inoiz baino biziago dago, baina kulturgintzak momentu latzak bizi ditu", azpimarratu dute.

2022ko Azokan aurkezteko

2021eko Durangoko Azokan esango dute zein proposamenek irabazi duen laugarren Sormen Beka hau; 2022ko Azokan erakutsiko dute lan horren emaitza. Aurreko edizioetan, Iratxe Aguilera Kai Nakai eta Atopia RPG rol jokoa izan dira sarituak. Hirugarren Sormen Beka *Bañolet* telesaila k irabazi zuen; aurtengo azokan aurkeztuko dute.



Orain urte biko irakurraldiko argazkia.

'Maitasuna' Hitzzez eta Ahotsez irakurraldian

Aldaketa askogaz, baina betiko gogoagaz antolatu dute ekimena. Aurten, San Agustin kultur gunean izango da

LITERATURA • JONE GUENETXEA

Bizi dugun sasoiara egokitutako irakurraldi girotua antolatu dute aurten, Hitzzez eta Ahotsez ekimenean. Maitasuna hartu dute gaitzat. 6-7 orduko ekitaldiaren ordeztu, saio bi egingo dituzte: 18:00etatik 19:00etara eta 19:30etik 20:30era, San Agustinen. Zozketa bidez aukeratutako 60 lagun egongo dira. Aurreko edizioetan 300era ere heldu dira. Partaide batzuek euren testuak irakurriko dituzte, Leire Bilbaok, Peru Magdalenak, Leire

Narbaizak, Ane Arbeok eta Markel Sanchezek, besteak beste. Antzerkiak ere izango du lekua, Karrikoen eskutik. Ander Ertzilla musikariak Elena Olaberena poema musikatuak eskainiko ditu. Gorka Valdesek trikiti soinuaren alaituko du saioa. Bertsolariek ere ez dute hitzordura hutsik egingo. Erika Lagoma, Eneko Abasolo, Kristina Mardaras, Justo Alberdi, Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertan izango dira. Urteroko bidaia horretan, Luhartz taldea ere batuko da maitasun girora.



Mikel Uriguena zinegotzia, Nerea Mujika Gerediaga presidentea eta Ane Abanzabalegi zinegotzia.

Gai librean

Kapitel eta almenak

Hizkien gainetik pasatu dut hatz lodia, izen ezaguna ikusteak piztutako zirra irribarrean. Azala zabaltu eta abiatu naiz aurretik atzera atalez atal, begirada goitik behera eraman eta berriz gora itzuliz. Eta, ezustean, izerdi arrastotxo nabaritzen hasi naiz, orrialde bereko lehen lerrora enegarren itzulia hastearekin bat; korapilotxo sortu zait zentzu bi izan zitzaizkeen hitzaren eta harrapaezina zaidan ertz bat gordezten duen metaforaren aurrean.

Gogora ekarri dut kidearen irudia eta bertan ere egin dut oinetatik bururainoko ibilbidea. Lasaigarria gertatu zait orezta eta zimurak kokatzeko gai izatea, eta arreta berriz liburuan finkatu dudanean kolpatu nau papere-tan gordetzen den bihurtze eta toles kopuruak, zeinek ozta-ozta baino ez naizen ikuskatzeko gai izango. Ezagu-



Leire Vargas Nieto
Sortzailea

Gogora ekarri dut kidearen irudia eta bertan ere egin dut oinetatik bururainoko ibilbidea

Ez da erabateko logika edo azalpenik geure buruak ulertzeko sortzen ditugun ekoizpenen ostean

nen ekoizpenak aztertzeak sorpresak dakartza; askotan pentsatu ohi dut: uste baino handiagoa da laguna, edo uste baino urrutiago nago ni. Liburuko hitzek hainbat zentzu eta konnotazio dituzte, eta elkarren ondoan paratuz eraikitzen dituzten gazteluen kapitel eta almenak lausoak zaizkit maiz. Ez da erabateko logika edo azalpenik geure buruak ulertzeko sortzen ditugun ekoizpenen ostean.

Eta beldurgarria da pentsatzea ezin hurbilago dugun norbaiten baitan usnatzen ez ditugun gauzak konprenitzen ditugunak baino gehiago direla. Oxala guztiok "liburu irekiak" bagina! Oi, baina hemen nago ni, lagunak idatzitakoa parean, bosgarren ahapaldia ulertu ezinik. Akaso irekita daudenean iradokitzen dituzte sekretu gehien liburuek, gure gorputz biluzek zirrikituak eta zokoak dituzten era berean. Segurutzat, hutsala litzateke inongo orbanik eta markarik gabeko azala, metonimia bako poemak tarte laburrerako entretenituko gaituen bezala. Poetikotasunak eskatzen du ariketa, errepika, baina hamaikagarren irakurketan ere xehetasun berriak aurkitzeko aukera ederra eskaintzen du. Nik ere gura izan dut inoiz ekuazio soil baten bidez ingurukoak ulertzeko gai izatea. Baina literatura urria da esanahi bakarreko berbetan, ez da hala?



**Ekaitz
Molina Jaen**

Amorebieta futbol
klubeko erdilaria

ABADIÑO | 1990

“Bigarren Mailara igotzeko urteren bat badago, aurtengoa dela esango nuke”

Klubeko historian lehenengoz, Amorebietak Bigarren Mailara igo dezake aurtan. Playoff-etarako sailkatu da joan zen asteburuan Logroñes taldea menderatuta. Aurretik, partidu bakarrera jokatu diren kanporaketa bi geratzen zaizkio

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Playoff-etarako sailkapenaren ondoren, egon zen ospakizunik?

Apur bat bakarrik, gure artean. Ahal zena. Egoera ez dago gauzak asko ospatzeko, zoritxarrez.

Datorren urtean sortuko den maila berrira, Federazioko Lehen Mailara, sailkatzea sorpresa izan bada zelan kalifikatu daiteke Bigarren Mailara playoff-etara sartu izana?

Guretzat Federazioko Lehen Mailara sailkatzea helburu bat zen hasieratik. Kanpotik gauzak beste modu batera ikusi zitezkeen, Amorebietak ez duelako beste talde batzuen izena, baina argi geneukan hor egon gintezkeela. Hori bai, urte osoan lehenengo postuetan ibili gara, eta, egia esan, ez genuen espero hain goian sailkatzea. Eta behin hor

ibilita, argi geneukan playoff-etara sartzeko borrokatu behar genuela.

Gauden tokian egotea sari bat da, baina igoera lortzeko borrokatu behar dugu. Horrelako aukera bat gutxitan sortuko da berriro

Jon Larrea presidenteak eta Iñigo Velez de Mendizabal entrenatzaileak taldearen anbizioa azpimarratu dute. Anbizioa duzue gidari?

Gosea dugu, bai. Taldeko jokalaririk gehienok denbora bat daramagu futboleko. Ilusioa ere aipatuko

nuke. Anbizio eta ilusio horrek denok kutsatu gaitu eta norabide berean bultza egin dugu. Anbizio hori zelaian ere igartzen dela uste dut.

Joan zen asteburuko partidua da horren erakusgarri. Berdinketak balio zizuen, baina 3-1 irabazi zenuten.

Beti irteten dugu irabaztera, ez dakigulako beste era batera jokatzeko. Oso talde intentsoa gara, aurkariari jokatzeko uzten ez dion horietarikoa. Borroka eta lana ez dira negoziatzeko.

Sailkapena lortuta, zelan hartuko duzue asteburuan Calahorraren aurka jokatu duzuen lehen faseko azken partidua?

Playoff-etarako sailkatuta gaude, bai, baina oraindino badugu zer bait jokoan. Irabazten badugu eta Real Bk galtzen badu, bigarren tokira igoko dugu.

Zer suposatzen du hirugarren barik bigarren amaitzeak?

Hirugarrenak lehenengo baten kontra jokatu du playoff-etako lehenengo partidua. Kasu horretan, kanporaketa ez da penaltietara helduko. Luzapenaren ondoren berdinketa mantentzen bada, lehenengo taldea sailkatuko da. Bigarren amaituta, oster, beste bigarren baten kontra jokatu dugu eta penaltia egongo dira partidua berdinduta amaituz gero. Aldea dago. **Bigarren Mailatik partidu bira zaude. Barneratu duzue horrek zer esan gura duen?**

Bagara kontziente, baina, behar bada, denbora batera emango diogu

benetan duen garrantzia. Denboraldi osoan goian ibili garenez, ematen du betidanik gaudela hor eta normala dela. Ez da sorpresatzat hartzen. Baina, bai, aurtengo urtea berezia da. Partidu bi geratzen dira Bigarren Mailara igo ahal izateko, eta sei jokatu behar izatea da normalena. Bigarren Mailara igotzeko urteren bat badago, aurtengoa dela esango nuke.

Aurretik datozen partidua gozatze ala irabazteko dira?

Gure errezeta eguneroko lana da. Gauden tokian egotea sari bat da

Aurtan beste rol bat egokitu zait. Beste toki batetik nabil futbola ikusten, ohituta ez nagoen toki batetik

guretzat, baina igoera lortzeko borrokatu behar dugu. Urrun eta gertu dago aldi berean. Horrelako aukera bat gutxitan agertuko da berriro. Egongo da gero ospakizunetarako astia.

Azkenaldian, ikusi ditugu taldeak berea eman barik finalak galtzen. Baduzue horren beldurrik?

Ez dut uste hori gertatuko zaigunik. Oso argi dugu zein den gure jokamoldea eta zer egin behar dugun. Taldeak emango du berea.

Zelan doa zuretzat aurtengo denboraldia?

Ia partidu guztietan parte hartu dut, baina gehienetan aulkitik zelairatu izan naiz. Aurtan beste rol bat egokitu zait. Beste toki batetik ikusi dut futbola, hain ohituta ez nagoen toki batetik, baina beste esperientzia eta jakintza batzuk pilotzeko balio izan dit. Zelai barrutik zein kanpotik ahal izan dudanean laguntzen ahalegindu naiz.

Jokatzen dabilena zure herrikide gaztea da!

Bai, Ikerrek [Unzueta] asko hobetu du. Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailara saltoa dago, baina ondo egokitu da. Konfiantzagaz dabil eta erantzukizunari aurre egiten dabil. Ahal dudanean laguntzen diot eta ea noraino heltzen den!

Amorebietakoa ez da zure lehenengo esperientzia Bigarren B Mailan. Durangoko Kulturalagaz ere ibili zinen urtebetean. Jarraitzen diozu Kulturalaren ibilbideari?

Bai, lagun asko ditut han. Urte gaxa dute aurtengoa eta sufritzen dabilta. Baina esango nuke lortuko dutela aurrera irtetea.

2018an handia egin zenuten Kulturallean. Mailaz igo eta klubak Bigarren B Mailan ospatu zuen sortu zeneko mendeurrena.

Kointzidentzia polita izan zen. Sasoi bereziak bizi izan nituen. Gainera, asko parte hartu nuen taldean. Urte batzuk generamatzen jokamolde jakin batez eta ibilbide on batez eta hura bizitzea itzela izan zen.

Zornotza Saskibaloia Taldea bete-betean sartuta dago Urrezko Ligara igotzeko borrokan

Final-zortzirenetan Lleidako Pardinyes taldea du aurkari; joaneko partidua atzo jokatu zuten eta itzulikoa domeka honetan izango da, Larrea kiroldegian. Zornotza Saskibaloia Taldea beste denboraldi bikain bat osatzen dabil

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Saskibaloia denboraldia une erabakigarrian sartzen denean, badago hitzordura oso gutxitan huts egiten duen klub bat: Zornotza Saskibaloia Taldea. Eta aurtengo urtea ez da salbuespena. Zilarrezko Ligatik Urrezko Ligara igo ahal izateko play off-ak martxan dira eta hantxe dago Mikel Garitaonandiak zuzentzen duen taldea.

Final-zortzirenetako kanporaketa Lleidako (Katalunia) CB Pardinyes taldearen kontra dabil lehia-tzen. Atzo arratsaldean jokatu zuten joaneko partidua, eta domeka honetan jokatuko dute itzulikoa, Zornotzako Larrea kiroldegian.

Berez, kanporaketa hau orain asteburu bi lehiatzekoa zen, baina Lleida taldeko jokalariek batzuek COVID-19an positibo eman ostean, atzeratu egin zuten.



Iker Salazar baloiagaz, taldeko erasoa antolatzen, eta bere ondoan Jeremy Roriguez. **ZORNOTZA SASKIBALOA TALDEA**

Lan bikainaren saria

Zornotza Saskibaloia Taldeak merezita lortu du igoera faserako txartela. Liga erregularrean hirugarren tokian amaitu du, 26 partidutik 16 irabazita. Batez beste, puntu-rik gutxien jaso duen hirugarren taldea izan da eta erasoan ere onenen artean dago. Azken horretan, erasoan, aurtengo denboraldian

fitxatu dituzten jokalariek bi izan dira saskiratzaille nagusiak: Bryson Robinson estatubatuarra 12,85 puntugaz eta Jeremy Rodriguez dominikarra, 12,21egaz. Hauek biak dira saiakerarik gehien egiten duten jokalariek ere, bai biko jaurtiketetan, bai hirukoetan. Iker Salazar bilbotarraren ekarpena

ere azpimarratu beharra dago. Ez da kasualitatea taldean minuturik gehien jokatu duen jokalaria bera izatea. Bilbotarrak denerik egiten du eta estatistika askotan goian ageri da. Esaterako, Robinson eta Rodriguez aurretik dituzten sartutako puntuen kantitatean, baina biko jaurtiketetan berak du portzentaje-

rik onena: 119 saiakeratik 73 sartu ditu, %61,34. Mendebaldeko ligan hamar jokalarik bakarrik izan dute berak baino batez besteko hobeak. Gainera, erreboterik gehien hartu duen hirugarren jokalaria izan da: 8,28 errebote partiduko. Hori gutxi balitz, errekuuperatutako baloien sailkapenean ere goian dago.



Lidia Cañete Euskadiko onena arku-tiroan

ARKU-TIROA • J.D.

Osasun krisia hasi aurretik zuen maila onari eusten dio Lidia Cañetek, eta joan zen domekan Euskadiko arku-tiro txapelketa irabazi zuen Sestaon, beterranoen mailan. 2019an, beterranoetarako salto eman zuen urtean, txapelketa irabazi zuen, eta 2020an ez zen antolatu COVID-19agaitik. Beraz, Zaldibar Arku Taldeko durangarrak irabazi ditu azken edizio biak.

Urtebetean ez du gura adina entrenatu ahal izan, baina, hala ere, ez du zehaztasunik galdu, txapelketako distantzia guztietan errekor berriak ezarri ditu eta puntuazioan. 60 eta 30 metroko tiroetan bereak ziren aurreko errekorrak; 50 eta 40 metrokoetan Maria Teresa Sanchezek eta Koro Barearenak ondu ditu.

Jokaldia

Sarri

Sarri joan naiz mendira zein basora txakurrak hartuta, hotz zein bero, euria zarra-zarra ere bai. Sarri sentitu ditut mendia eta basoa nire habitat natural han korrika nabilela, orduan sentitzen bainaiz baketsuen eta zoriontsuen. Sarri dakartzkide mendiak eta arbola-diak gogora Alluitz eta Ametz semeak, eta sarri pentsatu dut zein ederra den familia. Sarri esan dut nire txakurrak ere familiaren parte direla eta euskal ardi-txakurra babestu behar dela. Sarri entzun ditut kukua eta okila gure basoetan, eta sarri pentsatu dut naturak indar berezia eta bizipoza ematen dizkidala. Sarri akordatu naiz hemengo eta hango mendietan hil direnekin, eta sarri pentsatu dut mendiaren altzoan bakean egongo direla. Sarri ikusi ditut plastiko zatiak, latak eta deneriko za-



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendiko lasterketak

"Sarri entzun diet aita-amei esaten eurentzat beti izan zarela Jose Angel, eta ez Joseba, eta itzelean estimatzen zaituztela"

"Sarri hitza entzunda bakarrik, sarri akordatu naiz zurekin, sekula elkarrekin egon ez bagara ere. Ondo etorri, Sarri!"

borra basoan barreiatuta, zer esanik ez maskarak azken urte honetan, 'nasobukoak' (Zorionak eta eskerrak asko elkarriketaz, ANBOTO), eta sarri batu ditut, ernegatuta, eta poltsikoan edo plastikozko poltsa batean sartu gero zakarrontziren batera botatzeko. Sarri erreparatu diet mendi-basoetatik AHTko obrei, eta sarri arrakaldu zait

bihotza trena dela eta egin nahi duten munstrokeria imajinatuta. Sarri pasatu gara kotxean Tabirako zubi erraldoiaren azpitik, eta sarri entzun diet semeek esaten "zubi leluaurik! Ez dau ezetako be balidxo bata!". Sarri geratu gara Izurtzako Etxaburuko dorre karratu, estu eta garaiari so ea Ginebra erregina ikusten genuen leihotik begira, eta sarri pentsatu dut euskara dela ile horaileko anderearen territorio libre bakarra ere. Sarri ez bada ere, inoiz joan naiz basora ajea lagun hartuta, bezperan txosnetan Kortaturen doinuekin burua, besoak eta hankak dantzan ipini eta Biba zu! abestu eta gero. Sarri entzun diet aita-amei esaten eurentzat beti izan zarela Jose Angel, eta ez Joseba, edo Sarri, eta itzelean estimatzen zaituztela. Sarri hitza entzunda bakarrik, sarri akordatu naiz zurekin, sekula elkarrekin egon ez bagara ere. Ondo etorri, Sarri.

DURANGALDE



Zornotzako ituna

Zornotzako ituna Bigarren Gerra Karlistari amaiera emateko asmoz 1872ko maiatzaren 24an Zornotzan sinatu zen hitzarmena izan zen. Itun hori jauregi honetan sinatu zuten. Gaur egun, eraikinak Convenio Hotela hartzen du.

KO TXOKOAK ?



Argiñetako nekropolia

Argiñetako nekropolia Elorrioko Mendraka auzoan dago, herrigunetik kilometro bira. San Adrian izeneko baseliza ondoan dago. Barruan, kristautasuna heldu aurreko hiru hilarri daude eta kareharrizko hogeita hiru hilobi (IX. mendekoak), horietatik bat bikoitza.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

// AUKERA

KURUTZIAGA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. **C.E.E=E 124.500 €**
IURRETA: MASPE: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailu berria. Eguzkitsua. Berriztatua. **C.E.E= E. 140.000 €**
BERRIZ: 74 m2. 3 logela, komuna dutxagaz, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua.C.E.E= F ALOKAIRUAN, EROSTEKO AUKERAGAZ. **110.000 €**
ALDE ZAHARRA: 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa-trastelekua. **C.E.E.= F.130.000 €**
DURANGO: Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Argitsua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Jantzia. **C.E.E= F. 145.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

BIXENTE KAPANAGA: 90 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Ganbara. **C.E.E=F 185.000 €**
ATXONDO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta despentsa. Terraza. **C.E.E.=G 130.000 €**
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E=G 178.000 €**
IURRETA: Apartamentua. Logela, komuna, sukaldea, egongela eta eskegitokia. Ganbara. Garajea 2 kotxerentzat. **C.E.E= E. 170.000 €.**
MATIENA: Trañabarren. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara. Garajea. Eguzkitsua. **C.E.E=E 198.000 €. ALOKAIRUAN EROSTEKO AUKERAREKIN.**
SAN INAZIO: 3 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E.= F. 226.000 €**
EZKURDI: 175 m2. 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E.=F. 350.000 €**
MATIENA: ESTREINATZEKO. (Tasatua) 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. Garajea eta trastelekua. **C.E.E= A. 210.000 €**
MASPE: 126 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela terrazagaz. Ganbara. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E.= F. 250.000 €.**
B. KAPANAGA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. **C.E.E= G. 125.000 €**
MATIENA: SOLAGUREN. Erdialdean. Argitsua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. C.E.E=G. **120.000 €**
ERRETENTXU: Etxebizitza altua. Argitsua. 3 logela, komuna leihoagaz, sukaldea eta egongela terrazagaz. Garajea aukeran. **C.E.E=F 208.000 €.**
J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Ganbara. **C.E.E=G. 215.000 €**
SAN AGUSTINALDE. 103 m2. DENA BERRIA. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza.
ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. **C.E.E=F 198.000 €**
IURRETA: MASPE: 3 logela eta komuna. Terraza. Igogailua. Berriztatua. **C.E.E=F. 160.000 €**
F.J. DE ZUMARRAGA: 4 logela, komuna eta egongela terrazagaz. Eguzkitsua. **220.000 €**
KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 186.000 €.**
MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **CEE= E. 160.000 €**
ABADIÑO: 1.000 m2-ko lursaila eraikitze baimenagaz. **250.000 €**
EUBA: Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ikuspegi ederrak. **C.E.E=E 147.600 €.**
MAÑARIA: Etxebizitza eta atikoak. Estreinatze. **125.000 €**
BERRIZ: BIDEAIN. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E= F. 205.000 €**

// LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI
F.J. ZUMARRAGA: AUKERA. 114 m2. SALMENTA **175.000 €**
ASK.ETORBIDEA: Garaje itxia. **24.000 €**
ASK.ETORBIDEA: 8.000 €-tik aurrera.

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Txibitena. 4 logela. Pisu zabala. Sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua.
DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.
DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.
ABADIÑO
ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ
ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.020 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.
GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria.
ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitze. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.
MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO
30 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
92,71 m²
MARTXOAREN 8KO KALEA: (antzinatasuna 12 urte) 3 logela, egongela, sukaldea jantzita, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 18,30 m2-ko garaje itxia. Igogailua. Leku onean.
315.000 € C.E.E: Bidean



IURRETA
3 logela
68,62 m²
ZUBIAURRE: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Erdia kanpora begira. Igogailua. Kontserbazio egoera onean. Leku onean. AUKERA.
150.000 € C.E.E:F



ELORRIO
84,8 m²
3 logela
IBAIONDO: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Etxe osoak kanpora ematen du. Leku onean kokatua. Egoera onean. Garajea eta 3 m2-ko trastelekua. Bigarren garajea aukeran (15.000 €).
225.000 € C.E.E:F



BERRIZ
79 m²
3 logela
MAZAGA: Egongela, sukalde jantzia, eta komuna. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 40 m2-ko ganbara. (etxebizitzaren gainean) Igogailua. Berriztatzeko. Ezin hobea norbere gustura egokitzeko. Berdegunez inguratuta. Erraztasuna aparkatzeko.
124.000 € C.E.E:E



ABADIÑO
2 Logela
79,7 m²
ITURRITXO: (16 urteko antzinatasuna): Egongela, Sukalde jantzia eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Igogailua. 14,05 m2.ko garajea eta 4,63 m2-ko trastelekua. Leku onean kokatua. 11m2-ko ganbara. Hegoalde.
215.000€ C.E.E: Bidean



MATIENA
3 logela
81,7 m²
ARLOZABAL: Egongela,sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. 10 m2-ko ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Kontserbazio egoera onean. Igogailua.
189.000 € C.E.E: E

//DURANGO

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 300.000 € / E.E.Z=F**
GOIENKALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **155.000 € / E.E.Z=G**
KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **130.000 € / E.E.Z=F**
KOMENTU KALEA: 4 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela balkoiagaz, bainugela eta komuna. **LEHEN 160.000 € / ORAIN 140.000 € E.E.Z=G**
MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**
SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**
SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**
TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**
TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**

//ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.E=BIDEAN.**

//BERRIZ

ANDIKONA AUZOA: Berreraikitze baserria. **460.000 €.**
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**
LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **LEHEN 102.000 € / ORAIN 95.000€ / E.E.Z=E**
MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

//IURRETA

FAUSTE AUZOA: Baserria. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Lurzoruagaz. **300.000 € / E.E.Z=G**
OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//MAÑARIA


KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. **150.000 € / E.E.Z= BIDEAN**

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**
GONBILAZ AUZOA: Baserria.5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **350.000 € / E.E.Z=BIDEAN.**

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, lokal komertzialak eta garajeak. Buleagoan galdetu.



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Botikak

BARIKUA, 7 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	DOMEKA, 9 · 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	ASTELEHENA 10 · 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
ZAPATUA, 8 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
09:00-13:30	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	MARTITZENA, 11 · 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	09:00-22:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	EGUAZTENA, 12 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	EGUENA, 13 · 09:00-09:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
09:00-14:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	09:00-22:00
09:00-22:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Juankar eta **Nahia** aita-alabek urteak egiten dituzte maiatzean. Nahiak 8 urte egingo ditu maiatzaren 10ean. Ondo pasa eta topera ospatu zure eguna, printzesa! Zorionak bioi! Muxus! Maite zaituztet: ama.

Orain dela 9 urte, apirilak 26, jaio zan **Inge Narbaiza Aldekoa**. Dios, ze arin pasetan dan denbora. Muxu potolo bat etxekoan partez.

Zorionak, **Peru!** Primeran pasau eguna! Patxo handi-handi bat etxekuen partez! Maite zaittugu!

Apirileko hiru damatxok urteak egin dituzte. Zorijonak, **Maddi, Uxue** eta **Lur**.

Konturatu orduko etxeko txikiena handitu jaku. 6 urte egingo dauz eta inguruetako mendi-tontorretara be heltzen hasi da. Ondo pasatu urtegune eta gozatu ospakizunetan. Mosu handi bat etxekoan eta maite zaituen danen partez. Muak eta 6 belarri-tirekada.

Zorijonak maiatzeko gure loratzuerei! Jarraitu holako jator eta alai, Manex!

Eguraldia		
ZAPATUA 🌡 30° / 10° ☀	ASTELEHENA 🌡 17° / 8° ☁	EGUAZTENA 🌡 18° / 7° ☁
DOMEKA 🌡 25° / 12° ☁	MARTITZENA 🌡 13° / 7° ☁	EGUENA 🌡 16° / 9° ☁

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olioak etab.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketak, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperminak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, **telefonoz** edo **whatsapp** bidez gugaz kontaktuan jarri: **688 773 205 / 688 734 329**

“Ingelesa ikasteko ezinbestekoa da motibazio zehatz bat izatea”

Jeffreyk eta Kevinek ingelesa ikasteko akademia zabalduko dute irailean, Zornotzan. Gazte ekintzaile bi hauek Oxford Language School-en metodoa erabiliko dute



Jeffrey Nku Etse
GHANA | 1997

Kevin Martin Pascual
ZALDIBAR | 1997
Oxford Jk Academies

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Zornotzako Gudari kalean duten lokala atontzen dabilta Jeffrey eta Kevin, bertan ingeles akademia bat ipintzeko. Maiatzaren erdialdean zabalduko dute izena emateko aukera, irailaren erdialdean ikasturteagaz hasteko. Kevinek arlo administratiboa eroango du eta Jeffreyk eskolen ardura hartuko du.

Zelan animatu zarete ingeles akademia bat zabaltzera?

Jeffrey: Lau urtean Oxford Language Schoolen lan egin dut, eta nik neuk akademia bat sortzeko gogo sortu zitzaidan. Umezarotik laguna dut Kevin eta beragaz hartu emanetan ipini nintzen. Bera ere animatu

zen eta proiektuari ekin genion. Gazteak gara eta ez geneukan buruan honako abentura batean sartzeko asmorik, baina ingelesarekiko dudak pasioa horren gaitetik dago. Askok gustatzen zait irakastea. COVID-19aren ondorioz sortutako egoerak ez zaituzte atzera eragin?

Kevin: Inondik inora ere ez. Gehiago esango nuke, hasteko gogo handiagoa sortu digu. Ez dugu beldurrik, arriskuak hartzea gustatzen zaigu eta konfiantza osoa dugu gure proiektuan eta gure trebetasunean. Proiektu hau aurrera aterako dugula uste dugu.

Jeffrey: Oxford Language Schoolen parte izateak ematen duen babesak

asko lagundu digu. Frankizia lez jardungo dugu, gu geu izanda.

Txikienetatik hasi eta ikasteko prest dagoen edonori zuzenduriko eskolak emango ditugu

KEVIN MARTIN

Norengana heldu gura duzue?

Kevin: Txikienetatik hasi eta ikasteko prest dagoen edonori zuzenduriko eskolak emango ditugu, adina dena delakoa izanda. Ingelesa hizkuntza garrantzitsua da nazioartean, inoiz ez zaio ikasteari uzten, eta

denok eduki beharko genuke aukera. Onena umetatik ikasten hastea da, aurrera begira ateak zabaltzeko. Askorentzat gainditu bako irakasgaia da ingelesa.

Jeffrey: Bai, baina horretan laguntzeko gaude gu, bertako irakasleekin batera, hizkuntza ezagutzen dutelako eta haiek direlako hizkuntza egoki erakutsi dezaketenak.

Kevin: Sarritan zama bat lez ikusten dugu ingelesa. Ostera, erabiltzen dugun metodoak ingelesa ikastea zerbait dibertagarri bihurtu gura du, jarduera ludikoekin. Hizkuntza ikasteko era dinamikoa da.

Ingelesa pasio duzula diozu, Jeffrey.

Hizkuntza bat ikasteko gustuko izan behar dugu, eta zergaitik erakartzen gaituen jakin

JEFFREY NKU

Jeffrey: Hala da! Ghana kolonia britainiarra izan da beti, hizkuntza ofiziala da ingelesa, eta ikastetxeetan erakusten dute. Premiazkoa da. Nire jaioterrian Twi-a berba egiten da, baina eskolan ingelesa ikasten da. Amak ere ingelesez berba egiten zidan. Hizkuntza gustatzen hasi zitzaidan eta ikasten jarraitu dut. Askok gustatzen zait eta ate asko zabaltzeko.

Zein da ingelesa ikasteko motibazio handiena?

Jeffrey: Askok daude. Atzerrira bidaiatzean komunikatzeko, lanerako... Ezinbestekoa da motibazio zehatz bat izatea. Hizkuntza bat ikasteko gustuko izan behar dugu, eta zergaitik erakartzen gaituen jakin. Horixe da giltza: pizgarri bat, estimulu bat aurkitzea. Bestetik, konstantea izatea, amore ez ematea beharrezkoa da. Ingelesa ikasten jarraitzen dut, inoiz ez dugu amaitzen hizkuntza bat ikasten. Euskaragaz gertatu zitzaidan: hasieran ezinezkoa zela uste nuen, baina ikasi nuen. Onartu behar dut ingelesa baino gaxagoa egin zaidala.

Kevin: Era dinamikoan ikastea garrantzitsua da. Entretenigarriagoa da, eramangarriagoa. Askotan derrigorrez ikasten dugu, baina garrantzitsua da ikasi gura izatea, beste edozein ikasgaigaz lez.

Lauhortza

Igor Galartza Intxausti
Kazetaria



Vermouterako adina

Barkamena eskatzen hasiko naiz: barkatu 30 urteko mugaren krisia gainditu guran zabiltzatenok; barkatu jubilazioa gertu duzuenok; barkatu erretiratzeko garaia iritsi zaizuen baina onartu gura ez duzuen kirolariok. Izan ere, zuei aspaldian noiz edo noiz burutik igaro zaizuen ondorio bat darabilkit buruan: zahartzen hasi naiz.

Eta utzi iezadazue, mesedez, sentsazio hori izaten. 1998ko inuzente eguneko, baina nire buruan XX. mendekoa naizela dut. Gari entzuten dudanean “Zaharra zara, Igor” eta “Zahartzen ari naizela” besterik ez diot entzuten. Joan zen asteburuan Traña-Matienako San Prudentzioak zirelarik, kontzertuen zerrendari erreparatu nionean, begietatik sartu zitzaidan lehen taldea Puro Relajo izan zen.

Ordea, Zea Mays ikustera joan nintzen. Poztu nintzen berriz horrenbeste jende kultur ekimen batean ikustez. Bariku bateko 19:00ak ziren, baina hit bat hit da eguneko 24 orduetan (alarma ez bada behintzat), eta han altxatu ginen azken abestian. Egia da, pandemiaren bide luze honetan zaila da justifikatzen edozein ekimen jendetsu, baina kulturak erakutsi du posible dela era eraginkor batean funtzionatzea.

Ordu t'erdiz berriz gaztetu nintzen, 22 urte ditudala gogoratu nuen. Agian hori behar baitu gazteak: ekintzak, kultura, jendea, gazte sentitu dadin eta bere grinak piz daitezen. Uste dut, edo uste gura dut, zahartzearen kontua ez dela nire arazoa bakarrik. Gazte asko sentituko dira gaur egun zahar, dituzten ilusio eta ametsak 20:00etan itxi duten tabernako vermoutaren eta 22:00ak baino lehen etxera ailegatzeko esprint-aren artean itzaltzen zaizkielako.

Estetika gida
anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491